

# Gailu eta zirkuitu elektronikoak

2016-2020ko  
azterketen bilduma

Lourdes Pérez Manzano  
Susana Uriarte del Río  
Rubén Gutiérrez Serrano  
Rosa Lago Aurrekoetxea  
M.<sup>a</sup> José Sáenz Novales

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**Gailu** eta zirkuitu elektronikoak [Recurso electrónico]: 2016/2020ko azterketen bilduma (enuntziatuak eta soluzioak) / Lourdes Pérez Manzano ... [et al.]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2021]. – 1 recurso en línea : PDF (175 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-289-5.

1. Circuitos electrónicos – Exámenes, preguntas, etc. 2. Componentes electrónicos – Exámenes, preguntas, etc.  
I. Pérez Manzano, Lourdes, coaut.

(0.034)621.38.049(076.3)

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak sustatua eta zuzendua, Euskarazko ikasmaterialgintza sustatzeko deialdiren bitartez.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-289-5

# Aurkibidea

<b>Enuntziatuak</b> .....	5
2019/2020 .....	6
2020ko uztaila .....	6
2020ko ekaina .....	12
2018/2019 .....	19
2019ko ekaina .....	19
2019ko maiatza .....	22
2017/2018 .....	26
2018ko uztaila .....	26
2018ko maiatza .....	29
2016/2017 .....	32
2017ko ekaina .....	32
2017ko maiatza .....	37
2015/2016 .....	42
2016ko ekaina .....	42
2016ko maiatza .....	45
<b>Soluzioak</b> .....	49
2020ko uztaila .....	50
Teoria .....	50
PN juntura - Zirkuitu diododuna .....	53
Drain komuneko anplifikadorea .....	56
Igorle komuneko anplifikadorea .....	59
2020ko ekaina .....	63
Teoria - Zirkuitu diododunak .....	63
Kolektore komuneko anplifikadorea .....	67
Ate komuneko anplifikadorea .....	72

2019ko ekaina . . . . .	75
PN juntura - Zirkuitu diododuna . . . . .	75
Igorle komuneko anplifikadorea . . . . .	78
Iturri komuneko anplifikadorea . . . . .	85
2019ko maiatza . . . . .	88
Diodoa - PN juntura . . . . .	88
Igorle komuneko anplifikadorea . . . . .	92
Ate komuneko anplifikadorea . . . . .	96
2018ko uztaila . . . . .	101
Diododun eta transistoredun zirkuitua . . . . .	101
Igorle komuneko anplifikadorea (bi transistore) . . . . .	105
Iturri komuneko anplifikadorea . . . . .	111
2018ko maiatza . . . . .	114
PN juntura - Zirkuitu diododuna . . . . .	114
Igorle komuneko anplifikadorea . . . . .	117
Iturri komuneko anplifikadorea . . . . .	121
2017ko ekaina . . . . .	126
Teoria . . . . .	126
Zirkuitu diododuna . . . . .	128
Igorle komuneko anplifikadorea . . . . .	130
Drain komuneko anplifikadorea . . . . .	134
2017ko maiatza . . . . .	138
Teoria . . . . .	138
Zirkuitu diododuna . . . . .	140
Igorle komuneko anplifikadorea . . . . .	143
Iturri komuneko anplifikadorea . . . . .	148
2016ko ekaina . . . . .	152
PN juntura - Zirkuitu diododuna . . . . .	152
Kolektore komuneko anplifikadorea . . . . .	156
Iturri komuneko anplifikadorea . . . . .	159
2016ko maiatza . . . . .	162
PN juntura - Zirkuitu diododuna . . . . .	162
Transistore bipolarra . . . . .	166
Igorle komuneko anplifikadorea . . . . .	167
Iturri komuneko anplifikadorea . . . . .	172

---

# **Enuntziatuak**

2019/2020

## 2020ko uztaila

### A Atala

1. Seinale txikian lan egiten duen FET bat(ek):

- a. Portaera lineala du denboraren arabera magnitudeekiko.
- b. Draina eta iturri terminalen arteko konduktantzia batez eta korrante-sorgailu batez ordeztu daiteke.
- c. Beste bi erantzunak zuzenak dira.

2. JFET bat ia baliokidea da funtzionamenduan:

- a. MOSFET batena, urritzekoa edo ugaltzekoa.
- b. Ez da MOSFETen baliokidea, atearen eta kanalaren arteko isolamendua desberdina baita.
- c. Urritze MOSFET batena.

3. Seinale txikiko erregimena:

- a. Erregimen dinamikoaren kasu berezi bat da, non, polarizatuta egoteaz gain, gailu elektronikoen denboraren arabera tentsioak edo korranteak jasatenbaituzte, baina polarizazio-balioak baino askoz txikiagoak.
- b. Gailuek portaera lineala dute.
- c. Beste bi erantzunak zuzenak dira.

4. BJTren konfigurazioaren arabera:

- a.  $A_V$ ,  $A_I$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$  parametroen balioak beti berdinak dira, BJTren konfigurazioa alde batera utzita.
- b. Balio desberdinak lortzen dira  $A_V$ ,  $A_I$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$  parametroetarako.
- c.  $A_V$ ,  $A_I$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$  parametroen balioak aldatzen dira, BJTak portaera ideala duen ala ez.

**5.**  $p$  pasabideko ugaltze MOSFET batean, draineiko korronea egon dadin:

- a.  $V_G > V_T$
- b.  $V_G < V_T$
- c.  $V_T < V_G < 0$

**6.** Kuadripoloen teoria:

- a. BJTan bakarrik aplika daiteke, maiztasun baxuetan lan egiten badu.
- b. BJTari aplika dakioke, seinale txikian lanean ari denean.
- c. BJTan aplika daiteke, bai estatikan, bai dinamikan.

**7.** Early efektuak:

- a. Etenduran bakarrik du garrantzia, bi junturak alderantziz polarizatuta daudenean.
- b. BJT erreal baten portaera ikasgelan ikusitako idealetik desbideratzen den ideia ematen du.
- c. Basearen zabaleraren eta junturei aplikatutako tentsioen arteko mendekotasuna islatzen du.

**8.** Potentzial termodinamikoa:

- a. Oreka termodinamikoaren ondorio bat da, eta eroankortasun ezberdina duten bi material elkartzuz gero agertzen da.
- b. Orekan egon arren, korronte garbia dago potentzial termodinamikoaren ondorioz.
- c. Esperimentalki neur daiteke, egituraren bi muturren artean voltmetro bat jarritz, besterik gabe.

**9.** Transistore bipolar baterako, Ebers-Moll-en eredu(k):

- a. BJTa modu aktiboan polarizatuta badago bakarrik da baliozkoa.
- b. Gailuaren funtzionamendua deskribatzen du, bai estatikan, bai dinamikan. Azken kasu horretan, tentsioak denboraren arabera izango dira.
- c. Gailuaren funtzionamendua deskribatzen du, bere junturetako edozein polarizazio-baliotarako.

**10.** FET batean:

- a. Atearen korronea nulua da  $V_{GS} = V_{DS}$  bada soilik.
- b. Atearen korronea ia nulua da.
- c. Atearen korronea nulua da, kanala ito edo zulatu bada soilik.

11. Hauek dira FETen aplikazio ohikoenak:

- a. Erresistentzia lineala eskualde gradualean, eta tentsioak kontrolatutako iturria asetsunean.
- b. Erresistentzia ez-lineala eskualde gradualean, eta tentsioak kontrolatutako iturria asetsunean.
- c. Erresistentzia ez-lineala eskualde gradualean, eta korronteak kontrolatutako iturria asetsunean.

12. Eguzki-zelulak:

- a. Argi-erradiazioarekiko oso sentikorak diren gailuak dira, fotodiodoak bezala.
- b. pn junturan oinarrituta daudenez, zuzeneko polarizaziopean zein alderantzizkoan lan egin dezakete.
- c. pn junturan oinarritzen dira, eta argi-erradiazioa energia elektriko bihurtzen dute. Horretarako, laugarren koadrantean lan egin behar dute.


**B Atala**

1. Siliziozko erdieroaleez egindako pn juntura batean, honako datu hauek ezagutzen dira:  $N_D = 10^{20} \text{ cm}^{-3}$ ,  $N_A = 10^{16} \text{ cm}^{-3}$ ,  $n_i = 10^{10} \text{ cm}^{-3}$ .

- a) Kalkulatu potentzial termodinamikoa giro-tenperaturan.
- b) Potentzial termodinamikoa kalkulatzeko erabiltzen den adierazpenak balio al du juntura mota guztietarako? Arrazoiu erantzuna.
- c) Zer lotura du potentzial termodinamikoak pn juntura baten eskualde dipolarraren eremu elektrikoarekin?

2. Erakutsitako zirkuiturako, datu hauek ematen dira:

$$V_1 = 5V, \quad V_2 = 10V, \quad R = 1 \text{ k}\Omega, \quad \text{diodoak idealak}$$



1. irudia



Gailuetarako zeinu-hitzarmena erabiliz, eta transferentzia-kurba kontuan hartuta, kalkulatu:

a)  $v_{\text{out}}$  maximoa eta  $v_{\text{out}}$  minimoa

$v_i = +15 \text{ V}$  izanda:

b)  $v_{\text{out}}, I_{D1}, V_{D1}, I_{D2}$  eta  $V_{D2}$

$v_i = +2,5 \text{ V}$  izanda:

c)  $v_{\text{out}}, I_{D1}, V_{D1}, I_{D2}$  eta  $V_{D2}$

$v_i = -15 \text{ V}$  izanda:


d)  $v_{\text{out}}, I_{D1}, V_{D1}, I_{D2}$  eta  $V_{D2}$

Kommutazioari buruz:

e)  $v_i$ -ren balioa,  $D_1$  kommutatzeko (V)

f)  $v_i$ -ren balioa,  $D_2$  kommutatzeko (V)

## C Atala



2. irudia

Irudiaren zirkuituan, parametro hauek dituen transistore bat erabili da:

$$|V_T| = 5 \text{ V} \quad k = 2 \text{ mA/V}^2$$

Seinale sinusoidal alterno puruaren sorgailu batek,  $v_{in}$ , transistorea kitzikatzen du.


Zirkuituaren beste balio batzuk honako hauek dira:

$$R_G = 10 \text{ k}\Omega \quad V_{DD} = 10 \text{ V}$$

- Zer transistore mota da? Marraztu transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Transistorearen funtzionamenduak, asetasunean,  $I_D = k (V_{GS} - V_T)^2$  ekuazioa jarraitzen badu, zenbat balio du asetasun-korronteak ( $I_{DSS}$ )?
- Kalkula ezazu  $R_L$ -ren balioa, transistorea asetasunean polarizatuta egonda, bere drainaren korrontea 2 mA-koa izan dadin. Egiaztatu funtzionamendu-egoera hori.
- Kalkulatu  $g_m$  parametroaren balioa.
- Marraztu seinale txikiko zirkuitua, eta kalkulatu zirkuituaren tentsio-irabazia.

**D Atala**

Irudiaren zirkuitua kontuan hartuta,



3. irudia

DATUAK:  $I_{CB0} = 1,21 \cdot 10^{-14} \text{ A}$      $I_{EB0} = 4,03 \cdot 10^{-15} \text{ A}$      $\alpha_R = 0,3311$      $V_T = 25 \text{ mV}$

$V_1 = 12 \text{ V}$ ,     $R_2 = 2 \text{ k}\Omega$ ,     $R_3 = 200 \Omega$ ,     $R_4 = 22 \text{ k}\Omega$ .

$I_E = -2 \text{ mA}$  bada, kalkulatu:

- $V_{BE}$  tentsioaren balioa.
- $V_{CE}$  tentsioaren balioa.
- $R_1$  erresistentziaren balioa.
- Kalkulatu eta marraztu (paperean) karga zuzen estatikoa, balio esanguratsuenak adieraziz. Egin itzazu egokitzat jotzen dituzun hurbilketak.
- Kalkulatu zirkuituaren tentsio-irabazia.
- Marraztu, grafiko berean, sarrerako eta irteerako tentsioak, balio esanguratsuenak adieraziz, honako bi kasu hauetarako:
  - $v_i(t) = 10 \text{ mV}_p$
  - $v_i(t) = 30 \text{ mV}_p$

## 2020ko ekaina

### A Atala

1. BJT baten ezaugarri-kurbak(ek):

- a. Gailu idealaren funtzionamendua soilik deskribatzen dute.
- b. «Ebers-Moll»en ereduaren adierazpen grafikoa dira.
- c. Soilik erabil daitezke BJTak igorle komuneko konfigurazioan lan egiten duenean.

2.  $n$  pasabideko urritze MOSFET batean:

- a.  $V_G = 0$  denean, pasabidea dago.
- b.  $V_G < V_T$  denean, pasabidea dago.
- c. Pasabidea dago, soilik  $V_{DS_{sat}}$  lortzen bada.

3. JFET batean:

- a. Atariko tentsioa bat dator drainekeo asetasun-tentsioarekin.
- b. Itotze-tentsioa bat dator drainekeo asetasun-tentsioarekin.
- c.  $I_{DSS}$  gailutik asetasunean ibil daitekeen drainekeo korrante maximoa da.

4.  $pn^+$  diodo asimetriko batean, eskualde dipolarra, batez ere, dopaketa . . . . . duen eskualdetik hedatzen da; kasu honetan, . . . . . da.

Oreka termodinamikoan, potentzial gehien duen eskualdea . . . . . da.

Polarizaziopean,

— korrantea garraiatzeaz arduratzen den eramailea, nagusiki, . . . . . da, . . . . . eskualde dopatuena delako.

— Gailuaren funtzionamendua nagusiki menderatzen duen eskualdea dopaketa . . . . . duena da, hau da, . . . . .

## 5. Erregimen dinamikoan:

- a. Kolektoreko korrontearen eta baseko korrontearen arteko zatidura maiztasunaren funtzioa da, maiztasuna handitu ahala handituz.
- b. Kolektoreko korrontearen eta baseko korrontearen arteko zatidura beti da konstante:  $\beta$ .
- c. Kolektoreko korrontearen eta baseko korrontearen arteko zatidura bat dator erregimen estatikoko balioarekin, maiztasun baxuetan bakarrik.


## 6. Erregimen dinamikoan:

- a. Shockley-ren ekuazioak ez du balio, gailuko karga-aldaketekin lotutako korrante-termino berriak agertzen baitira.
- b. Ezin da Shockley-ren ekuazioa erabili; soilik, gailua seinale txikiko erregimenean dagoenean.
- c. Shockley-ren ekuazioa MHz-etako maiztasunetaraino erabil daiteke.

## 7. Gune aktiboan:

- a. BJTak korronteak eta tentsioak kontrolatutako korrante-iturri bezala jokatzen du.
- b. BJTak tentsioak kontrolatutako korrante-iturri bezala jokatzen du.
- c. BJTak korronteak kontrolatutako korrante-iturri bezala jokatzen du.

8.  $V_1 = 10 \text{ V}$ ,  $V_2 = 5 \text{ V}$ ,  $I_{sat1} = 30 \mu\text{A}$ ,  $I_{sat2} = 10 \mu\text{A}$ ,  $R_L = 1 \text{ k}\Omega$ ,  $V_T = 25 \text{ mV}$



1. irudia

Kalkulatu (gailuetarako zeinu-hitzarmena erabiliz):  $I_{D1}$ ,  $I_{D2}$ ,  $V_{D1}$ ,  $V_{D2}$  eta  $V_0$

**9. Oreka termodinamikoan dagoen pn juntura batean:**

- a. Elektroiaren eta hutsunearen atomo eta barreiararen korranteak daude; baina, juntura orekan dagoenez, korranteen osagaiak konpentsatu egiten dira, eta korrante garbia nulua da.
- b. Ez dago atomo korrante ez barreiararen korrante, juntura orekan dagoelako.
- c. Elektroi-korrantea baino ez dago, partikula bezala existitzen diren eramaile bakarrak, eta, beraz, mugitu daitezkeenak.

**10. ZENER diodoak**

- a. Duen ukondoko tentsioa diodo artezgailuak duena baino askoz handiagoa da.
- b. Alderantzizko polarizaziopean soilik lan egin dezake.
- c. Tentsio-iturri gisa erabiltzen dira, alderantzizko polarizaziopean.

**11. «Einstein-en erlazioa» ( $k$ ):**

- a. Erregimen dinamikoan soilik da baliagarria.
- b. Atomo eta barreiararen osagaien arteko erlazioa adierazten du, bai orekan, bai orekatik kanpo.
- c. pn junturarako soilik da baliagarria.

**12. FETetan, draineren korrantearen eta draineren aplikatutako tentsioaren arteko erlazioa:**

- a. Zuzenki proportzionala da asetasunean, non irteerako ezaugarriak ia 0 malda baitute.
- b. Zuzenki proportzionala da; horregatik, irteerako ezaugarriak lerro zuzen batekin hasten dira.
- c. Zuzenki proportzionala da, soilik draineren tentsioaren balio txikiarentzat, eskualde ohmi-koan.

**13. FETetan, draineren asetasun-tentsioa:**

- a. Gailuaren ezaugarrien arabera da soilik; beraz, magnitude konstante bat da.
- b. Gailua etenduran sartzen den draineren tentsioa da.
- c. balio absolutuan, atariko tentsioaren gainetik aplikatutako atearen tentsioa zenbat eta Handiagoa izan, orduan eta handiagoa da.


**14. Transistore bipolarra:**

- a. Gailu erdieroale bat da, eta elkarrengandik oso gertu dauden bi pn juntura ditu.
- b. Aukera biak zuzenak dira.
- c. Bipolarra da, eroapenean eramaile mota biek parte hartzen dutelako.

15. Eremu-efektuko transistoreak:

- a. Beste biak zuzenak dira.
- b. Polobakarrak dira, eroapenean eramaile mota bakar batek parte hartzen duelako.
- c. Kanpoko eremu elektriko batek edo potentzial-diferentzia batek kontrolatzen du pasabidearen eroankortasuna.

16.  $V_1 = 25 \text{ V}$ ,  $V_{\gamma}(D_1) = 0.3 \text{ V}$ ,  $V_{\gamma}(\text{LED}) = 4.5 \text{ V}$ ,  $R_L = 1 \text{ k}\Omega$



2. irudia

Kalkulatu (gailuetarako zeinu-hitzarmena erabiliz):  $I_{D1}$ ,  $I_{D2}$ ,  $V_{D1}$ ,  $V_{D2}$  eta  $V_0$ .


17. Seinale txikiko erregimenean lan egiten duen transistore bipolar baterako:

- a. pi zirkuitu hibridoa eta «h» parametroetan oinarritutako zirkuitua baliokideak dira, soilik maiztasun baxuetan.
- b. pi zirkuitu hibridoa eta «h» parametroetan oinarritutako zirkuitua baliokideak dira.
- c. pi zirkuitu hibridoa eta «h» parametroetan oinarritutako zirkuitua baliokideak dira, baina soilik igorle komuneko konfigurazioan.

**B Atala**


3. irudiko zirkuituaren datuak honako hauek dira:

$$|V_{BE}| = 0,6 \text{ V} \quad \beta = 250 \quad V_T = 0,025 \text{ V}$$



3. irudia

$v_s = 3 \text{ V}_p$  izanda, 4. irudiko grafikoan erakusten den seinalea igorlean neurtu da.



4. irudia



*Erantzun*


- Konfigurazio mota.
- Lan-puntua.
- Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa,  $I_C$ - $V_{CE}$  planoan, eta kokatu kalkulaturako  $Q$ .
- Muntaia osoaren tentsio-irabazia.
- Zirkuitu anplifikatzailearen tentsio-irabazia.
- Sarrerako inpedantzia.
- Nola eragiten du  $R_S$ -k muntaia osoaren tentsio-irabazian? Arrazoitu erantzuna.
- $R_1$  eta  $R_2$  erresistentzien balioak.
- Irteerako inpedantzia.
- Kalkulatu eta marraztu karga zuzen dinamikoa.
- Irteerako seinalearen tarte dinamikoa.

**C Atala**

5. irudiko transistorean:

$$|I_{DSS}| = 4 \text{ mA}$$

$$|V_T| = 2 \text{ V}$$



5. irudia

*Erantzun:*

- a) Zein motatakoa da zirkuituan erabilitako transistorea? Nolakoak dira haren asetasun-korrontea,  $I_{DSS}$ , eta atariko tentsioa,  $V_T$ ? Adierazi zirkuituan bertan transistorearen terminalak.
- b) Transistorea etenduran polarizatuta egon dadin, nolakoa izan behar da  $V$  tentsioa?
- c)  $V = 5\text{ V}$  izanda, kalkulatu iturriko terminalean dagoen tentsioa.
- d)  $V = 5\text{ V}$  izanda, kalkulatu  $R_2$  erresistentziak izan dezakeen balio maximoa transistorea asetasunean polarizatuta egon dadin.
- e) Kalkulatu transkonduktantzia,  $g_m$ .
- f) Zein da zirkuitu anplifikatzailearen konfigurazioa? Zenbatekoa da tentsio-irabazia? Atal honetatik aurrera, hartu  $R_2 = 1\text{ k}\Omega$ .
- g) Kalkulatu zirkuitu anplifikatzailearen sarrerako inpedantzia.
- h) Kalkulatu zirkuitu anplifikatzailearen irteerako inpedantzia.
- i) Irudian erabilitako polarizazio-zirkuituak asetasuna bermatzen du, tentsioaren eta erresistentzien balioen independentziarekin? Arrazoitu erantzuna.

2018/2019

## 2019ko ekaina

1. irudiko zirkuituan, diodoak berdin-berdinak dira, eta 0,7 V-eko ukondoko tentsioa daukate.

- Kalkulatu eta marraztu zirkuituaren transferentzia-kurba.
- $v_{in} = 10 \cdot \sin(\omega t)$  V bada, marraztu  $v_{in}$  eta  $v_{out}$  grafiko berean.
- $D_1$  diodoaren polaritatea aldatuz gero, kalkulatu zirkuituaren transferentzia-kurba berria.


Gainera, badakigu 1. irudiko diodoak pn juntura batez osatuta daudela.  $n$  eskualdeak daukan elektroien kontzentrazioa  $10^{14} \text{ cm}^{-3}$  da,  $p$  eskualdeak daukana  $10^3 \text{ cm}^{-3}$ , eta kontzentrazio intrintsekoa  $10^{10} \text{ cm}^{-3}$ . Bestelako datuak:

$$\epsilon_{r, Si} = 11,8 \quad \epsilon_0 = 8,854 \cdot 10^{-12} \text{ F/m} \quad q = 1,6 \cdot 10^{-19} \text{ C}$$

- Kalkulatu potentzial termodinamikoa. Zein da potentzial gehien duen eskualdea?

ARRAZOITU ERANTZUNA.

- Kalkulatu hustutako eskualdearen zabalera oreka termodinamikoan. Zer eskualdetan zehar zabalduko da nagusiki? ARRAZOITU ERANTZUNA.




1. irudia

2. irudiko zirkuituan, honako hauek dira transistore bipolarren datuak:

$$\beta = 100 \quad V_{BE} = 0,7 \text{ V} \quad R_S = 5 \text{ k}\Omega \quad R_{Load} = 50 \text{ k}\Omega$$

Gainera, neurketa hauek egin dira:

$$I_C = 0,12 \text{ mA} \quad V_{CE} = 2,08 \text{ V} \quad Z_{in} = 11,13 \text{ k}\Omega \quad Z_{out} = 39 \text{ k}\Omega$$



2. irudia

- Kalkulatu  $R_C$ ,  $R_{B1}$ ,  $R_{B2}$  eta  $R_E$  erresistentzien balioa.
- Zirkuitua egonkorra da? ARRAZOITU ERANTZUNA.
- Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa,  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrian, balio esanguratsuenak adieraziz, eta, kokatu lan-puntua karga zuzen estatikoaren gainean.
- Kalkulatu muntaketa osoaren tentsio-irabazia eta korrante-irabazia.
- Kalkulatu eta marraztu karga zuzen dinamikoa,  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrian, eta kalkulatu tarte dinamikoa.
- Marraztu, grafiko berean,  $v_s(t)$  seinalea eta kolektoreko tentsio osoa,  $v_c(t)$ , honako kasu hauetan:
  - $v_s(t) = 10 \text{ mV}_p$
  - $v_s(t) = 60 \text{ mV}_p$

Erresistentzietarako honako balio hauek hartuz:

$$R_{B1} = 25 \text{ k}\Omega \quad R_{B2} = 24 \text{ k}\Omega \quad R_C = 39 \text{ k}\Omega \quad R_E = 68 \text{ k}\Omega$$


Eta  $V_{BB}$  ezezaguna dela, eta  $|I_{CO}| = 1 \text{ pA}$  eta  $|I_{EO}| = 0,5 \text{ pA}$  direla kontuan hartuz:

- Zein da transistorea asetaseren eramatzen duen baseko korronearen balio minimoa?
  - Kalkulatu  $\alpha_F$  eta  $\alpha_R$  parametroen balioak.
- $V_{BB}$  tentsioaren balio jakin baterako,  $I_B = 0,003 \text{ mA}$  lortu dela kontuan hartuz,
- Kalkulatu  $V_{BE}$ ,  $V_{BC}$  eta  $V_{CE}$  tentsioen balio zehatzak, eta  $I_C$  eta  $I_E$  korroneen balio zehatzak (hurbilketa hobeak direnak).

3. irudiko transistorean:

$$|I_{DSS}| = 1 \text{ mA} \quad |V_T| = 1 \text{ V}$$

- Zein da erabilitako gailua? Kokatu, zirkuituan bertan, draina, iturria eta atea.
- Marratu bere transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Kalkulatu lan-puntua.
- Marratu gailuaren irteerako ezaugarriak, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Marratu seinale txikiko zirkuitua.
- Kalkulatu tentsio-irabazia.




3. irudia

## 2019ko maiatza

1. 1. irudiko zirkuituan erabili den diodoak honako ezaugarri hauek ditu: 0,7 V-eko ukondoko tentsioa eta 3 V-eko haustura-tentsioa.

- Marraztu, kualitatiboki, diodoaren ezaugarri-kurba, bere languneak eta balio esanguratsuenak adieraziz. Zer diodo mota da? Zein da bere funtsezko erabilera?
- Kalkulatu eta marraztu zirkuituaren transferentzia-kurba.
- $v_{in} = 12 \cdot \sin(xt)$  V bada, marraztu  $v_{in}$  eta  $v_{out}$  grafiko berean.
- $v_{in}$  12 V-eko tentsio zuzena bada, kalkulatu zirkuituaren karga zuzen estatikoa eta diodoaren lan-puntua. Marraztu biak a) ataleko ezaugarri-kurban.




1. irudia


2. 2. irudiko zirkuituan, kolektorean tentsio osoa ( $v_C(t)$ ) neurtu da, eta 3. irudiko seinalea lortu da. Esandako seinalea lortzeko erabili den sarrerako tentsioa ( $v_{in}$ )  $136 \text{ mV}_P$ -koa izan da. Gainera, badakigu sarrerako tentsio hori erabiliz, aresetunaren mugara heltzen dela ( $v_{CE}(t) \cong 0 \text{ V}$  onartuz). Beste datu batzuk:

$$V = 20 \text{ V} \quad R_3 = 1 \text{ k}\Omega \quad R_L = 1 \text{ k}\Omega \quad \beta = 100 \quad Z_{in} = 0,57 \text{ k}\Omega \quad V_T = 25 \text{ mV} \quad V_{BE} = 0,7 \text{ V}$$

- Marrastu polarizazio-zirkuitua eta seinale txikiko zirkuitua.
- Kalkulatu polarizazioari dagokion kolektore-igorle tentsioa,  $V_{CE,Q}$ .
- Kalkulatu zirkuituaren tentsio-irabazia.
- Kalkulatu eta marrastu karga zuzen estatikoa eta karga zuzen dinamikoa  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrian, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Kalkulatu polarizazioari dagokion kolektoreko korronea,  $I_{C,Q}$ .
- Kalkulatu  $R_1$ ,  $R_2$  eta  $R_4$  erresistentzien balioa.



2. irudia




3. irudia

3. 4. irudiko zirkuituan, ezagunak dira honako datu hauek:  $R_2 = 1 \text{ k}\Omega$

$$|I_{DSS}| = 10 \text{ mA} \quad |V_{GS,OFF}| = |V_T| = 3 \text{ V} \quad R_1 = 1 \text{ M}\Omega \quad R_3 = 1 \text{ k}\Omega \quad V = 10 \text{ V}$$

- Zein da erabilitako gailua? Marraztu bere transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Kalkulatu gailuaren lan-puntua.
- Marraztu gailuaren irteerako ezaugarriak, eta kalkulatu eta marraztu karga zuzen estati-koa, lan-puntua kokatuz.
- Kalkulatu tentsio-irabazia, sarrerako inpedantzia eta irteerako inpedantzia.
- Nola deritzo zirkuituak alternoan duen konfigurazioari?
- Zirkuitu honek asetasunean lan egitea bermatzen du? **Arrazoitu erantzuna.**
- Zirkuitu hau mota bereko kanaleko beste FET mota bat polarizatzeko erabil daiteke? **Arrazoitu erantzuna.**





4. irudia

2017/2018

## 2018ko uztaila

1. 1. irudiko zirkuituko gailuei buruz, ezagunak dira honako datu hauek:

–  $D_1$  eta  $D_2$  diodoak berdin-berdinak dira, eta 2. irudiko ezaugarri-kurba daukate.

– Transistore bipolarra:


$$V_{BE,activa} = 0,7 \text{ V} \quad \beta = 100$$

$$V_{BE,saturación} = 0,8 \text{ V} \quad V_{CE,saturación} = 0,2 \text{ V}$$


$V_1 = 0,2 \text{ V}$  aplikatuz gero, kalkulatu:

- $D_1$  eta  $D_2$  diodoen egoera.
- $I_1$  korrontearen balioa.
- $I_2$  korrontearen balioa.
- Transistorearen lan-puntua eta langunea.

$V_1 = 10 \text{ V}$  tentsioa aplikatuz gero, erantzun berriz aurreko atalak. Kasu honetarako, kalkulatu, zehatz-mehatz,  $D_2$  diodoaren lan-puntua,  $I_{sat} = 0,1 \text{ pA}$ -koa bada.



1. irudia




2. irudia

2. 3. irudiko zirkuituan erabilitako transistore bipolarrei buruz, ezagunak dira honako datu hauek:

$$\beta_1 = 50 \quad \beta_2 = 100 \quad V_{BE1} = V_{BE2} = 0,7 \text{ V}$$


- Kalkulatu  $Q_2$  transistorearen lan-puntua.
- Kalkulatu eta marraztu  $Q_2$  transistorearen karga zuzen estatikoa,  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrietan.
- Kalkulatu zirkuitu osokoko  $\Delta V$  eta  $Z_{in}$ .
- Kalkulatu eta marraztu  $Q_2$  transistorearen karga zuzen dinamikoa,  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrietan. Zein izango litzateke transistore horren tarte dinamikoa?
- Marratzu, grafiko berean,  $v_{in}$  eta  $v_{ce2}$ , sarrerako tentsioa  $v_{in} = 1,5 \cdot \sin(\omega t)$  V denean. Zein izango litzateke  $v_{in}$  maximoa, irteeran distorsiorik ez izateko?



3. irudia

3. 4. irudiko zirkuituan, honako FET hau erabili da:  $|I_{DSS}| = 10 \text{ mA}$ ,  $|V_T| = 5 \text{ V}$ .

- a) Zer gailu mota da?
- b) Marraztu transistorearen transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.  
 $V_{GG}$  tentsioaren balio ezberdinetarako, transferentzia-ezaugarrian zehar ibiltzeko asmoa dugu. Horretarako,  $v_i = 0$  hartuz, kalkulatu:
- c) Gailuan pasabidea ager dadin, beharrezkoa den  $V_{GG}$  tentsioaren balioa.
- d)  $I_D = I_{DSS}$  izan dadin, beharrezkoa den  $V_{GG}$  tentsioaren balioa.
- e)  $V_{DS} = 10 \text{ V}$  izan dadin, beharrezkoa den  $V_{GG}$  tentsioaren balioa. Kalkulatu eta marraztu transistorearen karga zuzen estatikoa,  $I_D - V_{DS}$  ezaugarrietan,  $Q$  puntua adieraziz.
- f) Atalean lortutako korrante eta tentsioetarako, kalkulatu  $v_i$  tentsioa gailuan zehar korrante osoa nulua izan dadin,  $i_D(t) = 0$ .



4. irudia

## 2018ko maiatza

1. 1. irudiko zirkuituan, diodoak berdin-berdinak dira, eta  $V\gamma = 0,7$  V.

- Kalkulatu eta marraztu zirkuituaren transferentzia-kurba, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Marraztu irteerako tentsioa  $v_{in} = 6 \cdot \sin(\omega \cdot t)$  V bada. Zer zirkuitu mota da?
- Erabilitako diodoek egitura ezagun bati zor diote beren funtzionamendua; zer egitura da?
- Diodoen parametro fisiko eta teknologikoen balioak honako hauek dira:


$$\begin{array}{llll}
 N_A = 10^{16} \text{ cm}^{-3} & D_n = 30 \text{ cm}^2 / \text{V} \cdot \text{s} & L_n = 50 \text{ } \mu\text{m} & w_a = 200 \text{ } \mu\text{m} \\
 N_D = 10^{19} \text{ cm}^{-3} & D_p = 10 \text{ cm}^2 / \text{V} \cdot \text{s} & L_p = 50 \text{ } \mu\text{m} & w_a = 200 \text{ } \mu\text{m} \\
 N_i = 10^{10} \text{ cm}^{-3} & \epsilon_{r,SI} = 11,8 & \epsilon_0 = 8,85 \text{ pF/m} & w_a = 200 \text{ } \mu\text{m}
 \end{array}$$

Kalkulatu potentzial termodinamikoa eta eskualde dipolarraren zabalera orekako egoeran. Norantz zabaltzen da, nagusiki, eskualde dipolarra? Zein eskualdek dauka potentzial handiena?

**Arrazoitu erantzun guztiak.**

- Diodoei tentsio positibo bat, adibidez  $v_{AK} = 0,8$  V, aplikatzen bazaie, zer gertatuko zaio eskualde dipolarrari? Eta anodoaren eta katodoaren artean agertzen den potentzial-diferentziari? Kalkulatu balio berriak eta esan zein eskualdek duen potentzial handiena.

**Arrazoitu erantzun guztiak.**




1. irudia

2. 2. irudiko zirkuitu amplifikatzailearen tarte dinamikoa 1,5 V-ekoa da, eta etendurak mugatzen du. Gainera, irteerako inpedantzia 1 k $\Omega$ -ekoa da, eta sarrerako inpedantzia 0,77 k $\Omega$ -ekoa. Beste datu batzuk:

$$\beta = 100$$

$$V_T = 25 \text{ mV}$$

$$V_{BE} = 0,7 \text{ V}$$



2. irudia

- Marraztu seinale txikiko zirkuitua.
- Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa eta dinamikoa, zirkuituaren erresistentzien mende.
- Kalkulatu zirkuituaren erresistentzien balioak, egonkorra izan dadin.
- Kalkulatu lan-puntua.
- Kalkulatu sarrerako seinalearen balio maximoa, irteeran distortsioa saihesteko.


### 3. 3. irudiko zirkuituan,

- Esan zein den erabilitako transistore mota, eta marraztu bere transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Dagoen transistorearen ordez, erabili n pasabideko JFET bat. Bere parametroak honako hauek dira:

$$|I_{DSS}| = 0,5 \text{ mA} \quad |V_T| = 1,5 \text{ V}$$

Marraztu transistore berriaren transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.

- Kalkulatu  $R_S$ ,  $R_D$  eta  $V_{GG}$ , erresistentzia bietan tentsio berdina egon dadin eta lan-puntua  $I_D = 0,2 \text{ mA}$ ,  $V_{DS} = 3 \text{ V}$  izan dadin.
- Kalkulatu zirkuitu amplifikatzailearen  $\Delta_v$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$ .
- Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa eta dinamikoa, irteerako ezaugarrietan. Zein eskualdek mugatzen du tarte dinamikoa?
- Zirkuitu horrek asetasunean lan egitea bermatzen du? **Arrazoitu erantzuna.**
- N pasabideko ugaltze MOSFET bat polarizatzeko baliagarria da? **Arrazoitu erantzuna.**



3. irudia

2016/2017

## 2017ko ekaina

### Teoria


1. Alderantziz polarizatuta dagoen diodo batean zehar,
  - a) blokeo-korronte inbertsoa igarotzen da.
  - b) asetasun-korronte inbertsoa igarotzen da.
  - c) haustura-korronte inbertsoa igarotzen da.
  
2. Zein transistore mota dira tentsioak kontrolatutako gailuak?
  - a) JFETak eta MOSFETak.
  - b) JFETak eta BJTak.
  - c) MOSFETak eta BJTak.
  
3. P motako silizioan, zelan deritze eramaile ugarienei?
  - a) Hutsune.
  - b) Elektroi.
  - c) Ioi negatibo.
  
4. PNP transistore batek asetasunean lan egin dezan,
  - a) EB eta CB junturak zuzenki polarizatu behar ditugu.
  - b) EB juntura zuzenki eta CB juntura alderantziz polarizatu behar ditugu.
  - c) EB juntura alderantziz eta CB juntura zuzenki polarizatu behar ditugu.



- 5.** Zein diodo motak lan egin ohi du erreguladore gisa?
- a) Diodo artezlea.
  - b) Zener diodoa.
  - c) LED diodoa.
- 6.** Kolektore komuneko konfigurazioan, zirkuituko irteera
- a) Kolektorean kokatzen da.
  - b) Igorlean kokatzen da.
  - c) Basean kokatzen da.
- 7.** FET transistore bat, anplifikadore gisa lan egin dezan,
- a) gune aktiboan polarizatuta egon behar da.
  - b) asetasunean polarizatuta egon behar da.
  - c) gune gradualean polarizatuta egon behar da.
- 8.** MOSFET ideal batean,
- a)  $V_G$  edozein izanda ere, atearen eta substratuaren artean ez dago korronterik.
  - b)  $V_G < V_\gamma$  bada, atearen eta substratuaren artean ez dago korronterik.
  - c)  $V_G = 0$  bada, atearen eta substratuaren artean ez dago korronterik.
- 9.** Zein dira kolektore komuneko egituran lan egiten duen BJT batean oinarritutako anplifikadore bateko ezaugarriak?
- a)  $A_V - 1$ ,  $Z_{in}$  altua,  $Z_{out}$  baxua.
  - b)  $A_V < 1$ ,  $Z_{in}$  baxua,  $Z_{out}$  altua.
  - c)  $A_V \gg 1$ ,  $Z_{in}$  altua,  $Z_{out}$  baxua.
- 10.** Seinale txikiko erregimenean, gune aktiboan polarizatutako BJT batentzat:
- a) Kolektoreko eta baseko korronteen arteko erlazioa erregimen estatikoan dagoenaren berdina da.
  - b) Kolektoreko eta baseko korronteen arteko erlazioak gora egiten du maiztasunarekin.
  - c) Kolektoreko eta baseko korronteen arteko erlazioa erregimen estatikoan dagoenaren berdina da, maiztasun baxuetan lan eginez gero.

**Ariketak**

1. 1. irudiko zirkuituan, diodo biek daukaten ukondoko tentsioa  $V_\gamma = 0,7 \text{ V}$  da. Gainera, ZENER diodoak tentsioa  $3,5 \text{ V}$ -etara finkatzen du, bere korronea  $I_{Z,\min} = 0$ -tik  $I_{Z,\max}$ -ra doan tartean dagoenean.
- a)  $v_i = 10 \text{ V}$  izanda, kalkulatu  $R$  erresistentziaren balio minimoa ZENER diodoak hausturan lan egin dezan eta diodo arrunta zuzenean polarizatuta egon dadin.
- b) Kalkulatu eta marraztu transferentzia-kurba, sarrerako tentsioa  $-12 \text{ V} < v_i < 12 \text{ V}$  tartean badago eta  $R = 5 \text{ K}$  izanda.




2. 2. irudiko zirkuituan, honako neurketa hauek egin dira:

$$\Delta_v = -184 \quad I_C = 0,118 \text{ mA} \quad Z_{in} = 12 \text{ k}\Omega$$

Gainera:

$$\beta = 100 \quad \text{eta} \quad V_{BE} = 0,7 \text{ V}$$

- Kalkulatu zirkuituko erresistentzia guztien balioak.
- Zenbatekoa da tarte dinamikoa?
- Kalkulatu  $v_i$  tentsioaren balio maximoa ( $v_{i,max}$ ), irteeran distortsiorik izan ez dadin.
- Marraztu, grafiko berean,  $v_{i,max}$  eta  $v_{0,max}$ .



2. irudia


3. 3. irudiko anplifikadorean, FET transistoreak honako parametro hauek ditu:

$$|I_{DSS}| = 230 \text{ mA} \quad |V_T| = 3 \text{ V}$$

Gainera, ezagunak dira honako datu hauek:

$$V = 24 \text{ V} \quad R_1 = 150 \text{ } \Omega \quad R_2 = 180 \text{ } \Omega \quad R_3 = 2,2 \text{ k}\Omega$$

- Osatu FET transistorea egoki polarizatuta egon dadin, draina, iturria eta ateko terminalak ondo adieraziz. Zein motatakoa da FETa?
- Marratzu FETaren sarrerako eta irteerako ezaugarriak, balio esanguratsuenak adieraziz.
- Kalkulatu lan-puntua.
- Zirkuitu honek asetasunean lan egitea ziurtatzen du? Arrazoitu erantzuna.
- Zirkuitu hau baliagarria al da beste FET mota bat polarizatzeko?
- Kalkulatu, tentsio-irabazia, sarrerako inpedantzia eta irteerako inpedantzia.



3. irudia

## 2017ko maiatza


### Teoria

1. Oreka termodinamikoan dagoen PN juntura batean, zein eskualdek dauka potentzial handiena?
  - a) P eskualdeak.
  - b) Junturak.
  - c) N eskualdeak.
  
2. PN juntura alderantziz polarizatzean, potentzial-langa ...
  - a) ... handitzen da.
  - b) ... txikitzen da.
  - c) ... aplikatutako tentsioaren menpe dago.
  
3. Adierazpen hauetako bat zuzena da; zein?
  - a) Schottky diodo baten ukondoko tentsioa,  $V_\gamma$ , diodo arruntena baino handiagoa da.
  - b) LED diodo baten ukondoko tentsioa,  $V_\gamma$ , diodo arruntena baino handiagoa da.
  - c) Zener diodo baten ukondoko tentsioa,  $V_\gamma$ , diodo arruntena baino handiagoa da.
  
4. Zergatik esaten da BJTa bipolarra dela?
  - a) Bi juntura dituelako.
  - b) Erdieroale mota biz osatuta dagoelako.
  - c) Eramaile mota biek eroapenean parte hartzen dutelako.


- 5.** Igorle komuneko egituran, pnp motako transistore bipolar bateko sarrerako ezaugarrietan ...
- ... baseko korrontea ( $-I_B$ ) eta  $V_{BE}$  tentsioa erlazionatzen dira.
  - ... baseko korrontea ( $I_B$ ) eta  $V_{EB}$  tentsioa erlazionatzen dira.
  - ... baseko korrontea ( $-I_B$ ) eta  $V_{EB}$  tentsioa erlazionatzen dira.
- 6.** Transistore bipolar batean, irteerako ezaugarri-kurben errealek dauzkaten idealarekiko desbi-deratzeak:
- Early efektuari zor zaizkio.
  - Early efektuari eta  $\beta$  parametroaren  $I_c$ -rekiko menpekotasunari zor zaizkie.
  - $\beta$  parametroaren  $I_c$ -rekiko menpekotasunari zor zaizkio.
- 7.** Gailu elektroniko batean, noiz lortzen da tarte dinamikorik handiena?
- Lan-puntua ( $Q$ ) karga zuzen dinamikoaren erdian kokatzen denean.
  - Lan-puntua ( $Q$ ) karga zuzen estatikoaren erdian kokatzen denean.
  - Lan-puntua ( $Q$ ) karga zuzen dinamikoaren erdian kokatzen denean, eta, gainera, karga zuzen estatikoa eta karga zuzen dinamikoa bat datozenean.
- 8.** P pasabideko MOSFET batean, pasabidea dago...
- ... ateko tentsioa ( $V_G$ ) atariko tentsioa ( $V_T$ ) baino handiagoa denean.
  - ... ateko tentsioa ( $V_G$ ) atariko tentsioa ( $V_T$ ) baino txikiagoa denean.
  - ... ateko tentsioa ( $V_G$ ) atariko tentsioa ( $V_T$ ) baino handiagoa denean ugaltze MOSFETentzat, eta ateko tentsioa ( $V_G$ ) atariko tentsioa ( $V_T$ ) baino txikiagoa denean urritze MOSFETentzat.
- 9.**  $V_G$  konstante izanda,  $V_D$  aldatzen bada, nondik hasten da pasabidearen itotzea?
- Drainaren aldetik.
  - Iturriaren aldetik.
  - Atearen aldetik.
- 10.** JFET batean, nola kontrolatzen da pasabidearen zabalera?
- Ateko junturak zuzenean polarizatuz.
  - P pasabideko JFETetan ateko junturak zuzenean polarizatuz, eta N pasabideko JFETetan ateko junturak alderantziz polarizatuz.
  - Ateko junturak alderantziz polarizatuz.

## Ariketak

1. a) 1. irudiko diodoak berdinak dira eta 2. irudiko ezaugarri-kurba daukate. Kalkulatu eta marraztu zirkuituaren transferentzia-kurba, egokiagoa den seinale handiko ereduak erabiliz.
- b) Demagun  $D_1$  diodoa alderantziz polarizatuta dagoela eta  $D_2$  diodoa zuzenean polarizatuta dagoela; kalkulatu egoera honi dagokion karga zuzen estatikoa, eta kokatu karga zuzenaren gainean  $D_2$  diodoaren lan-puntua.
- c) Zenbatekoa da diodoen asetasun-korrontea,  $I_{SAT}$ ?



1. irudia

 $I_D$  (mA)

2. irudia

2. 3. irudiko zirkuituko transistoreak honako datu hauek ditu:

$$I_{ES} = 6 \cdot 10^{-15} \text{ A} \quad I_{CS} = 1,8 \cdot 10^{-14} \text{ A} \quad \alpha_R = 0,3311 \quad C = \infty$$

Gainera, kolektoreko korronea neurtu egin da:  $I_C = 1 \text{ mA}$ . Kalkulatu:

a)  $V_{BE}$ .

b)  $R_B$ .

Hemendik aurrera, erabil itzazu honako datu hauek:


$$I_C = 1 \text{ mA} \quad \beta = 149,25 \quad V_{CE} = 6,8 \text{ V} \quad R_B = 9,12 \text{ k}\Omega$$

c) Kalkulatu  $A_V$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$ .

d) Marraztu, grafiko berean,  $v_i$  eta  $v_{ce}$  sarrerako honako bi seinale ezberdin hauentzat, balio esanguratsuenak adieraziz:

$$- v_i = 0,5 \text{ sen } \omega t (\text{V})$$

$$- v_i = 1 \text{ sen } \omega t (\text{V})$$




3. irudia



3. 4. irudiko zirkuituan, hauek dira FET transistoreak dituen parametroak:

$$|I_{DSS}| = 9 \text{ mA} \quad |V_T| = 3 \text{ V}$$

- Zer transistore mota da?
- Zenbatekoa izan behar da  $R_{G2}$  erresistentzia, zirkuitu anplifikatzailearen sarrerako inpedantzia  $66,67 \text{ k}\Omega$ -ekoa izan dadin?
- Kalkulatu transistorearen lan-puntua, eta, marraztu  $I_D$ - $V_{GS}$  ezaugarria, bertan ahalik eta informazio gehien adieraziz.
- Kalkulatu  $A_v$  eta  $Z_{out}$ .
- Marraztu, irteerako ezaugarrietan, lan-puntua, karga zuzen estatikoa eta karga zuzen dinamikoa.



4. irudia


2015/2016

## 2016ko ekaina

1. PN junturako diodo batean, katodoak daukan elektroien kontzentrazioa  $10^{17} \text{ cm}^{-3}$  da, eta anodoak daukana  $10^7 \text{ cm}^{-3}$ .
- Zein da junturak duen potentzial termodinamikoa?
  - Zein da potentzial gehien duen eskualdea?
  - Kalkulatu hustutako eskualdearen zabalera. Zer eskualdetan zehar zabalduko da nagusiki?
  - Marraztu eremu elektrikoaren profila hustutako eskualdean, eta kalkulatu eremu elektrikoaren puntako balioa. Non lortzen da?

**Erantzun guztiak arrazoitu behar dira.**

Aurreko diodoa 1. irudiko zirkuituan erabiltzen da:



1. irudia


- e) Kalkulatu eta marraztu zirkuituko transferentzia-kurba (diodoak idealtzat jo daitezke).

Datuak:

$$V_T = 0,025 \text{ V} \quad n_i = 10^{10} \text{ cm}^{-3} \quad q = 1,6 \cdot 10^{-19} \text{ C}$$

$$\epsilon_{r,SI} = 11,8 \quad \epsilon_0 = 8,854 \cdot 10^{-12} \text{ F/m}$$

2. 2. irudiko zirkuituan, hauek dira erabilitako BJT transistoreak igorle komuneko konfigurazioan dituen parametroak:  $\beta = 100$  eta  $V_{BE} = 0,7 \text{ V}$ .
- Kalkulatu  $R_{B1}$  eta  $R_{B2}$  erresistentzien balioak, irteerako tentsioak tarte dinamiko maximoa lor dezan.
  - Kalkulatu zirkuituaren tentsio-irabazi osoa eta sarrerako inpedantzia.
  - Erabilitako tentsio-sorgailuak badu trabaren bat? Zer gertatuko litzateke tentsio-sorgailuaren  $R_S = 100 \Omega$ -ekoa izango balitz?




2. irudia

3. 3. irudia p pasabideko ugaltze MOSFET bat duen polarizazio-zirkuitua da. Asetasunean, ekuazio honen bidez kalkulatzen da transistorearen draineiko korronea:

$$I_D = K(V_{GS} - V_T)^2. \quad \text{Datuak: } |V_T| = 2 \text{ V} \quad |K| = 2 \text{ mA/V}^2$$

- Kokatu transistorearen ikurra polarizazio-zirkuituan, bere terminalak adieraziz.
- Marratzu MOSFETaren transferentzia-kurba.
- Kalkulatu  $R$  erresistentziaren balioa, MOSFETa eroaten has dadin.
- Kalkulatu  $R$  erresistentziaren balioa,  $V_0 = 16 \text{ V}$  izan dadin.
- Kalkulatu  $R$  erresistentziaren balioa, MOSFETak tentsio baten bidez kontrolatutako korrone-sorgailu modura lan egiteari uzteko.



3. irudia

## 2016ko maiatza


1. 1. irudiko zirkuituak  $V_T = 0,5$  V duten bi diodo berdin eta  $V_{BE} = 0,7$  V eta  $\beta = 200$  dituen transistore bipolar bat erabiltzen ditu.

- a) Kalkulatu eta marraztu  $I_c$  korrontearen balioa  $v_i$  tentsioaren arabera, diodoen zein transistorearen egoera posible guztiak kontuan izanda. Adierazi, grafikoan, balio esanguratsuenak eta transistorearen languneak.
- b) Azaldu PN junturako diodoaren seinale handiko eredu linealak, eta adierazi zein den aurreko atalean erabili duzuna.
- c) Kalkulatu, **zehatz-mehatz**, diodoak zeharkatzen dituen korrontea eta diodoetan agertzen den tentsioa,  $v_i = 5$  V denean. Diodoaren asetasun-korrontea ezaguna da,  $I_{sat} = 1$  pA.
- d) Erabilitako PN junturako diodoek honako ezaugarri teknologiko hauek dituzte:

$$A = 0,4 \text{ cm}^2 \quad N_D = 1 \cdot 10^{19} \text{ cm}^{-3} \quad n_i = 10^{10} \text{ cm}^{-3}$$

$$\epsilon_{r,Si} = 11,8 \quad \epsilon_0 = 8,85 \text{ pF/m} \quad \phi_T = 979 \text{ mV} \quad V_T = 25 \text{ mV}$$

- d1) Kalkulatu ezpurutasun hartzaileen kontzentrazioa,  $N_A$ .
- d2) Kalkulatu orekako hustutako eskualdearen zabalera.
- d3) PN juntura alderantziz polarizatzen badugu,  $v_i = -1$  V, zer gertatzen zaio hustutako eskualdeari? Kalkulatu egoera honetan izango duen zabalera.
- d4) Kalkulatu junturako kapazitatea,  $C_j$ ,  $v_i = -1$  V denean.




1. irudia

2. Basea zirkuitu irekian daukan p<sup>+</sup>np transistore bipolar bat daukagu. Igorlearen eta kolektorearen artean  $V \gg V_T$  den tentsioa aplikatzen badiogu, eta igorletik  $I_E$  korrontea pasatzen bada:
- Zein da  $V_{EB}$  tentsioaren balioa? Gailuaren ezaugarri bat da?
  - Zein langunetan egongo litzateke transistorea? Zein izango litzateke kolektoreko korrontea,  $I_C$ ?


**ERANTZUN GUZTIAK ARRAZOITU BEHAR DIRA.**

3. 2. irudiko zirkuitu amplifikatzailea aztertu nahi dugu. Datuak:  $V_{BE} = 0,6 \text{ V}$  eta  $\beta = 100$ .
- Marratzu polarizazio-zirkuitua, eta kalkulatu eta marratzu karga zuzen estatikoa  $I_C - V_{CE}$  irteerako ezaugarrietan.
  - Marratzu seinale txikiko zirkuitua, eta kalkulatu eta marratzu karga zuzen dinamikoa  $I_C - V_{CE}$  irteerako ezaugarrietan.
  - Kalkulatu  $R_{E1}$  eta  $R_{E2}$  erresistentzien arteko erlazioa, karga zuzen dinamikoaren malda karga zuzen estatikoaren bikoitza izan dadin.
  - Kalkulatu lan-puntua, c) ataleko egoeran.
  - Kalkulatu tarte dinamikoa.
  - Nola hobe genezake amplifikadorearen tentsio-irabazia  $R_E$  erresistentziarekin jokatuz gero? Zein izango litzateke hartutako soluzioak duen eragina?
  - Kalkulatu sarrerako eta irteerako inpedantziak, d) atalean lortutako emaitzekin.



2. irudia

4. 3. irudiko zirkuitua, n pasabideko urritze MOSFET bat duen muntaia baten seinale txikiko zirkuituari dagokio. Datuak:  $|I_{DSS}| = 8 \text{ mA}$   $|V_T| = 4 \text{ V}$   $g_m = 2(\text{k}\Omega)^{-1}$
- Marraztu muntaiaari dagokion seinale handiko zirkuitua. Horretarako, kontuan izan iturritik erreferentziara  $R_4 = 1 \text{ k}\Omega$  erresistentzia dagoela, kondentsadore batekin paraleloan. Gehitu behar diren osagaiak seinale handiko zirkuituari.
  - Kalkulatu  $I_D$  eta  $V_{GS}$ .
  - Marraztu  $I_D - V_{GS}$  ezaugarria, eta, bertan, kokatu FET transistorearen parametroen balioak eta  $Q$  puntuarenak.
  - Elikatze-tentsioa  $V_{DD} = 12 \text{ V}$  bada, kalkulatu drainekeo erresistentziaren balio maximoa, MOSFET transistorea asetasunean egoteko.
  - n kanaleko JFET bat polarizatzeko, erabil liteke daukagun zirkuitua?
  - Kalkulatu anplifikadorearen sarrerako eta irteerako inpedantziak.
  - $R_{\text{source}} = 50 \text{ k}\Omega$  bada, nolakoa izan behar da  $Z_{\text{in}}$  anplifikadorearen tentsio-irabazian eragirik izan ez dezan? Kalkulatu  $R_1$  erresistentziaren balioa, tentsio-irabazia  $\Delta V_s = -7,5$  bada ( $R_3 = \infty$  eta d] atalean lortutako drainekeo erresistentziaren balio maximoa hartu egin da).



3. irudia



---

# **Soluzioak**

## 2020ko uztaila

### Teoria

1. Seinale txikian lan egiten duen FET bat(ek):

- a. Portaera lineala du denboraren araberako magnitudeekiko.
- b. Draina eta iturri terminalen arteko konduktantzia batez eta korronte sorgailu batez ordezkadateke.
- c. Beste bi erantzunak zuzenak dira.

2. JFET bat ia baliokidea da funtzionamenduan:

- a. MOSFET batena, urritzekoa edo ugaltzekoa.
- b. Ez da MOSFETen baliokidea, atearen eta kanalaren arteko isolamendua desberdina baita.
- c. Urritze MOSFET batena.

3. Seinale txikiko erregimena:

- a. Erregimen dinamikoaren kasu berezi bat da, non, polarizatuta egoteaz gain, gailu elektronikoen denboraren araberako tentsioak edo korronteak jasaten baitituzte, baina polarizazio-balioak baino askoz txikiagoak.
- b. Gailuek portaera lineala dute.
- c. Beste bi erantzunak zuzenak dira.

**4.** BJTren konfigurazioaren arabera:

- a.  $A_V$ ,  $A_I$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$  parametroen balioak beti berdinak dira, BJTren konfigurazioa alde batera utzita.
- b. Balio desberdinak lortzen dira  $A_V$ ,  $A_I$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$  parametroetarako.
- c.  $A_V$ ,  $A_I$ ,  $Z_{in}$  eta  $Z_{out}$  parametroen balioak aldatzen dira, BJTak portaera ideala duen ala ez.

**5.** p pasabideko ugaltze MOSFET batean, draineiko korronea egon dadin:

- a.  $V_G > V_T$
- b.  $V_G < V_T$
- c.  $V_T < V_G < 0$

**6.** Kuadripoloen teoria:

- a. BJTan bakarrik aplikatu daiteke, maiztasun baxuetan lan egiten badu.
- b. BJTari aplikatu dakioke, seinale txikian lanean ari denean.
- c. BJTan aplikatu daiteke, bai estatikan, bai dinamikan.

**7.** Early efektuak:

- a. Etenduran bakarrik du garrantzia, bi junturak alderantziz polarizatuta daudenean.
- b. BJT erreal baten portaera ikasgelan ikusitako idealetik desbideratzen den ideia ematen du.
- c. Basearen zabaleraren eta junturei aplikatutako tentsioen arteko mendekotasuna islatzen du.

**8.** Potentzial termodinamikoa:

- a. Oreka termodinamikoaren ondorio bat da, eta eroankortasun ezberdina duten bi material elkartzuz gero agertzen da.
- b. Orekan egon arren, korrante garbia dago potentzial termodinamikoaren ondorioz.
- c. Esperimentalki neur daiteke, egituraren bi muturren artean voltmetro bat jarritz, besterik gabe.

**9.** Transistore bipolar baterako, Ebers-Moll-en eredua(k):

- a. BJTa modu aktiboan polarizatuta badago bakarrik da baliozkoa.
- b. Gailuaren funtzionamendua deskribatzen du, bai estatikan, bai dinamikan. Azken kasu horretan, tentsioak denboraren arabera izango dira.
- c. Gailuaren funtzionamendua deskribatzen du, bere junturetako edozein polarizazio-baliotarako.

**10. FET batean:**

- a. Atearen korrontea nulua da, soilik  $V_{GS} = V_{DS}$  bada.
- b. Atearen korrontea ia nulua da.
- c. Atearen korrontea nulua da, kanala ito edo zulatu bada soilik.

**11. Hauek dira FETen aplikazio ohikoenak:**

- a. Erresistentzia lineala eskualde gradualean eta tentsioak kontrolatutako iturria asetasunean.
- b. Erresistentzia ez-lineala eskualde gradualean eta tentsioak kontrolatutako iturria asetasunean.
- c. Erresistentzia ez-lineala eskualde gradualean eta korrontek kontrolatutako iturria asetasunean.

**12. Eguzki-zelulak:**

- a. Argi-erradiazioarekiko oso sentikorrak diren gailuak dira, fotodiodoak bezala.
- b. pn junturan oinarrituta daudenez, zuzeneko polarizaziopean zein alderantzizkoan lan egin dezakete.
- c. pn junturan oinarritzen dira, eta argi-erradiazioa energia elektriko bihurtzen dute. Horretarako, laugarren koadrantean lan egin behar dute.

**PN JUNTURA - ZIRKUITU DIODODUNA**

1. Siliziozko erdieroaleez egindako pn juntura batean, honako datu hauek ezagutzen dira:  
 $N_D = 10^{20} \text{ cm}^{-3}$ ,  $N_A = 10^{16} \text{ cm}^{-3}$ ,  $n_i = 10^{10} \text{ cm}^{-3}$

a) Kalkulatu potentzial termodinamikoa giro-tenperaturan.

$$\Phi_T = V_T \cdot \ln\left(\frac{N_A \cdot N_D}{n_i^2}\right) = 0,025 \cdot \ln\left(\frac{10^{16} \cdot 10^{20}}{10^{20}}\right) = \mathbf{0,921 \text{ V}}$$

b) Potentzial termodinamikoa kalkulatzeko erabiltzen den adierazpenak balio al du juntura mota guztietarako? Arrazoitu erantzuna.

*Ez, ez du balio juntura mota guztietarako. Juntura latz-lauarekin soilik erabil daiteke, non Nd-k bi balio konstante baititu juntura metalurgikoaren bi aldeetan.*


c) Zer lotura du potentzial termodinamikoak pn juntura baten eskualde dipolarraren eremu elektrikoarekin?

*Potentzial termodinamikoa eremu elektrikoaren integrala da, eskualde dipolarraren muturren artean.*

$$\Phi_T(x) = \int_{-x_p}^{x_n} \epsilon(x) \cdot dx = \frac{l \cdot |\epsilon_{\max}|}{2}$$

2. Erakutsitako zirkuiturako, datu hauek ematen dira:

$$V_1 = 5 \text{ V}, \quad V_2 = 10 \text{ V}, \quad R = 1 \text{ k}\Omega, \quad \text{diodoak idealak}$$




1. irudia

Gailuetarako zeinu-hitzarmena erabiliz, eta transferentzia-kurba kontuan hartuta, kalkulatu: a)  $v_{\text{out}}$  maximoa eta  $v_{\text{out}}$  minimoa

**5 V eta -10 V, hurrenez hurren.**

- $v_i = +15\text{ V}$  izanda:

- b)  $v_{\text{out}}$ ,  $I_{D1}$ ,  $V_{D1}$ ,  $I_{D2}$  eta  $V_{D2}$   
 $D_1$  ON eta  $D_2$  OFF




$$V_{\text{out}_1} = V_i = 15\text{ V}, V_{D1} = 0\text{ V}, I_{D2} = 0\text{ mA}$$

$$I_{D1} = \frac{V_i - V_1}{R} = \frac{15 - 5}{1} = 10\text{ mA}$$

$$V_{D2} = -V_2 - V_1 = -10 - 5 = -15\text{ V}$$

- $v_i = +2,5\text{ V}$  izanda:

- c)  $v_{\text{out}}$ ,  $I_{D1}$ ,  $V_{D1}$ ,  $I_{D2}$  eta  $V_{D2}$   
 $D_1$  OFF eta  $D_2$  OFF



$$V_{\text{out}_2} = v_i = 2,5\text{ V}, I_{D1} = 0\text{ mA}, I_{D2} = 0\text{ mA}$$


$$V_{D1} = v_i - V_1 = 2,5 - 5 = -2,5\text{ V}$$

$$V_{D2} = -V_2 - v_i = -10 - 2,5 = -12,5\text{ V}$$

- $v_i = -15$  V izanda:

4.  $v_{out}$ ,  $I_{D1}$ ,  $V_{D1}$ ,  $I_{D2}$  eta  $V_{D2}$

$D_1$  OFF eta  $D_2$  ON



$$V_{out_3} = -V_2 = -10 \text{ V}, I_{D1} = 0 \text{ V}, V_{D2} = 0 \text{ mA}$$

$$V_{D1} = -V_2 - V_1 = -10 - 5 = -15 \text{ V}$$

$$I_{D2} = \frac{-V_2 - V_i}{R} = \frac{-10 - (-15)}{1} = 5 \text{ mA}$$

- Kommutazioari buruz:


e)  $v_i$ -ren balioa,  $D_1$  kommutatzeko (V)

$$V_{out_2} = V_{out_1} \rightarrow V_i = 5 \text{ V}$$

f)  $v_i$ -ren balioa,  $D_2$  kommutatzeko (V)

$$V_{out_2} = V_{out_3} \rightarrow V_i = -10 \text{ V}$$

## DRAIN KOMUNEKO ANPLIFIKADOREA



2. irudia


Irudiaren zirkuituan, parametro hauek dituen transistore bat erabili da:

$$|V_T| = 5 \text{ V} \quad k = 2 \text{ mA/V}^2$$

Seinale sinusoidal alferno puruaren sorgailu batek,  $v_{in}$ , transistorea kitzikatzen du. Honako hauek dira zirkuituaren beste balio batzuk:

$$R_G = 10 \text{ k}\Omega \quad V_{DD} = 10 \text{ V}$$

- a) Zer transistore mota da? Marraztu transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.



**n pasabideko urritze MOSFET bat da.**



- b) Transistorearen funtzionamenduak, asetasunean,  $I_D = k (V_{GS} - V_T)^2$  ekuazioa jarraitzen badu, zenbat balio du asetasun-korronteak ( $I_{DSS}$ )?

$$I_D = k \cdot (V_{GS} - V_T)^2$$

$$I_D = I_{DSS} \cdot \left(1 - \frac{V_{GS}}{V_T}\right)^2 = I_{DSS} \cdot \left(\frac{V_T - V_{GS}}{V_T}\right)^2 = \frac{I_{DSS}}{V_T^2}$$

$$k = \frac{I_{DSS}}{V_T^2} \rightarrow I_{DSS} = k \cdot V_T^2 = 2 \cdot (-5)^2 \rightarrow I_{DSS} = 50 \text{ mA}$$

- c) Kalkula ezazu  $R_L$ -ren balioa, transistorea asetasunean polarizatuta egonda, bere drainaren korrontea 2 mA-koa izan dadin. Egiaztatu funtzionamendu-egoera hori.

$$V_{GS} = 0 - R_L \cdot I_D = -2 \cdot R_L$$

$$I_D = k \cdot (V_{GS} - V_T)^2 = 2 \cdot (-2 \cdot R_L - (-5))^2$$

$$4 \cdot R_L^2 \cdot -20 \cdot R_L + 24 = 0 \rightarrow R_L = 2 \text{ k}\Omega \text{ edo } 3 \text{ k}\Omega$$

$$R_L = 2 \text{ k}\Omega \rightarrow V_{GS} = -4 \text{ V} > V_T \checkmark$$

$$R_L = 3 \text{ k}\Omega \rightarrow V_{GS} = -6 \text{ V} < V_T \times$$

**Asetasunean egoteko:**  $V_{DS} \geq V_{DS_{sat}}$


$$V_{DS_{sat}} = V_{GS} - V_T = -4 - (-5) = 1 \text{ V}$$

$$V_{DS_{sat}} = V_{DD} - R_L \cdot I_D = 10 - 4 = 6 \text{ V} \quad \text{Baldintza betetzen da.}$$

- d) Kalkulatu  $g_m$  parametroaren balioa.

$$g_m = \frac{2 \cdot \sqrt{I_{DSS} \cdot I_D}}{|V_T|} = \frac{2 \cdot \sqrt{2 \cdot 50}}{5} = 4 (\text{K}\Omega)^{-1}$$

- e) Marraztu seinale txikiko zirkuitua, eta kalkula zirkuituaren tentsio-irabazia.



$$v_{\text{out}} = R_L \cdot g_m \cdot v_{gs}$$


$$v_{gs} = v_{\text{in}} - v_{\text{out}} = v_{\text{in}} - R_L \cdot g_m \cdot v_{gs}$$

$$v_{\text{in}} = v_{gs} + R_L \cdot g_m \cdot v_{gs} = (1 + R_L \cdot g_m) \cdot v_{gs}$$

$$\Delta v = \frac{v_{\text{out}}}{v_{\text{in}}} = \frac{R_L \cdot g_m}{(1 + R_L \cdot g_m)} = \frac{2 \cdot 4}{(1 + 2 \cdot 4)} \rightarrow \Delta v = \mathbf{0,899}$$

## IGORLE KOMUNEKO ANPLIFIKADOREA

Irudiaren zirkuitua kontuan hartuta,



3. irudia

DATUAK:  $I_{CB0} = 1,21 \cdot 10^{-14} \text{ A}$ ,  $I_{EB0} = 4,03 \cdot 10^{-15} \text{ A}$ ,  $\alpha_R = 0,3311$ ,  $V_T = 25 \text{ mV}$   
 $V_1 = 12 \text{ V}$ ,  $R_2 = 2 \text{ k}\Omega$ ,  $R_3 = 200 \Omega$ ,  $R_4 = 22 \text{ k}\Omega$ .

$I_E = -2 \text{ mA}$  bada, kalkulatu:

a)  $V_{BE}$  tentsioaren balioa.

Ebers-Mollen ekuazioak, zirkuitu irekiko asetatsun-korronteak erabiliz:

$$I_E = -\alpha_R \cdot I_C - I_{EB0} \cdot \left[ e^{\left(\frac{V_{BE}}{V_T}\right)} - 1 \right] \quad (1)$$

$$I_C = -\alpha_F \cdot I_E - I_{CB0} \cdot \left[ e^{\left(\frac{V_{BC}}{V_T}\right)} - 1 \right] \quad (2)$$

$$(1)\text{-tik } V_{BE} = V_T \cdot \left[ \text{Ln} \left( \frac{I_E + \alpha_R \cdot I_C}{-I_{EB0}} \right) + 1 \right] = \mathbf{0,6632 \text{ V}}$$

Elkarrekikotasunaren erlazioa erabiliz,  $\alpha_F \cdot I_{EB0} = \alpha_R \cdot I_{CB0}$

$$\alpha_F = \frac{\alpha_R \cdot I_{CB0}}{I_{EB0}} = 0,9941 \rightarrow \beta_F = \frac{\alpha_F}{1 - \alpha_F} = 168,49$$

(2)-tik, gune aktiboan,  $I_C = -\alpha_F \cdot I_E - I_{CB0} = 1,988 \text{ mA}$

$$I_B = \frac{I_C}{\beta_F} = 0,0118 \text{ mA}$$

b)  $V_{CE}$  tentsioaren balioa.

$$V_E = R_3 \cdot I_E = 0,4 \text{ V} \quad (I_E \text{ positibotzat hartuta})$$

$$V_B = V_E + V_{BE} = 1,0632 \text{ V}$$

$$I_{R4} = \frac{V_B}{R_4} = 0,0483 \text{ mA}$$

$$I_{R1} = I_{R4} + I_B = 0,0603 \text{ mA}$$

$$I_{R2} = I_{R1} + I_C = 2,0483 \text{ mA}$$

$$V_1 - R_2 \cdot I_{R2} - V_{CE} - V_E \rightarrow V_{CE} = 7,5 \text{ V}$$

c)  $R_1$  erresistentziaren balioa.

$$V_{BC} = V_{BE} - V_{CE} = -6,8368 \text{ V}$$


$$R_1 = \frac{-V_{BC}}{I_{R1}} = 113,37 \text{ k}\Omega$$

d) Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa, balio esanguratsuenak adieraziz. Egin itzazu egokitzat jotzen dituzun hurbilketak.

$$I_C = \frac{V_1 - V_{CE}}{R_2 + R_3} = \frac{12 - V_{CE}}{2,2}$$


$$I_C = 0 \rightarrow V_{CE} = 12 \text{ V}$$

$$V_{CE} = 0 \rightarrow I_C = \frac{12}{2,2} = 5,45 \text{ mA}$$



e) Kalkulatu zirkuituaren tentsio-irabazia.

Seinale txikiko zirkuitua:



$$g_m = \frac{I_C}{V_T} = \frac{1,998}{0,025} = 79,52 \text{ (K}\Omega\text{)}^{-1}$$

$$r_b = \frac{1}{g_b} = \frac{V_T}{I_B} = 2,08 \text{ k}\Omega$$

$$v_{in} = v_{be}$$

$$v_{out} = R_2 \cdot i_{out} = R_2 \cdot \left[ \frac{v_{be} - v_{out}}{R_1} - g_m \cdot v_{be} \right]$$

$$i_{out} = i_{R1} - i_c = \frac{v_{in} - v_{out}}{R_1} - g_m \cdot v_{be} = \frac{v_{be} - v_{out}}{R_1} - g_m \cdot v_{be}$$

$$v_{out} = \frac{R_2}{R_1} \cdot v_{be} - \frac{R_2}{R_1} \cdot v_{out} - R_2 \cdot g_m \cdot v_{be}$$

$$\Delta v = \frac{v_{out}}{v_{in}} = \frac{\frac{R_2}{R_1} - R_2 \cdot g_m}{\frac{R_2}{R_1} + 1} \rightarrow \Delta V = -155,28$$

f) Marraztu, grafiko berean, sarrerako eta irteerako tentsioak, balio esanguratsuenak adieraziz, honako bi kasu hauetarako:

f1)  $v_i(t) = 10 \text{ mV}_p$

f2)  $v_i(t) = 30 \text{ mV}_p$

Irteerako tentsioa marraztu ahal izateko, karga zuzen dinamikoa bilatu behar da.

$$v_{ce} = v_{be} - v_{bc} = r_b \cdot i_b - R_1 \cdot i_{R1} = r_b \cdot \frac{i_c}{\beta} - R_1 \cdot i_c - \frac{R_1}{R_2} \cdot v_{ce}$$

$$i_{R1} = i_c + i_{out} = i_c + \frac{v_{ce}}{R_2}$$

$$\left( 1 + \frac{R_1}{R_2} \right) \cdot v_{ce} = \left( \frac{r_b}{\beta} - R_1 \right) \cdot i_c$$

$$m_{kzd} = \frac{i_c}{v_{ce}} = \frac{\left( 1 + \frac{R_1}{R_2} \right)}{\left( \frac{r_b}{\beta} - R_1 \right)} = -0,508$$


karga - zuzen dinamikoa :  $(i_c(t) - I_C) = m_{kzd} \cdot (v_{ce}(t) - V_{CE})$

$$(i_c(t) - 1,988) = -0,508 \cdot (v_{ce}(t) - 7,5)$$


$$i_c(t) = 0 \rightarrow v_{ce}(t) = \frac{1,988}{0,508} + 7,5 = 11,41 \text{ V}$$

Tarte dinamikoa:  $11,41 - 7,5 = 3,91$  V, etendurak mugatuta.

$v_i(t) = 10$  mV<sub>p</sub> bada,  $v_{out} = \Delta V \cdot v_{in} = -155,28 \cdot 0,01 = -1,55$  V<sub>p</sub> (ez dago distortsiorik).



$v_i(t) = 30$  mV<sub>p</sub> bada,  $v_{out} = \Delta V \cdot v_{in} = -155,28 \cdot 0,03 = -4,65$  V<sub>p</sub> (Etendura dela eta, irteera distortsionatuta dago).



## 2020ko ekaina

### Teoria - Zirkuitu diododunak

1. BJT baten ezaugarri-kurbak(ek):
  - a. Gailu idealaren funtzionamendua soilik deskribatzen dute.
  - b. «Ebers-Moll»en ereduaren adierazpen grafikoa dira.
  - c. Igorle komuneko konfigurazioan lan egiten duenean soilik erabil daitezke BJTak.
2. n pasabideko urritze MOSFET batean:
  - a. Pasabidea dago, soilik  $V_{DS_{sat}}$  lortzen bada.
  - b.  $V_G < V_T$  denean, pasabidea dago.
  - c.  $V_G = 0$  denean, pasabidea dago.
3. JFET batean:
  - a. Atariko tentsioa bat dator drainekeo asetasun-tentsioarekin.
  - b. Itotze-tentsioa bat dator drainekeo asetasun-tentsioarekin.
  - c.  $I_{DSS}$  gailutik asetasunean ibil daitekeen drainekeo korrante maximoa da.
4.  $pn^+$  diodo asimetriko batean, eskualde dipolarra, batez ere, dopaketa ...txikien . . . . . duen eskualdetik hedatzen da; kasu honetan, ...anodoa..... da.

Oreka termodinamikoan, potentzial gehien duen eskualdea ...katodoa.... da.

Polarizaziopean,

— korrantea garraiatzeaz arduratzen den eramailea, nagusiki, ...elektroiak...dira, ...katodoa ..... eskualde dopatuena delako.

— Gailuaren funtzionamendua nagusiki menderatzen duen eskualdea dopaketa ...handiena..... duena da, hau da, ...katodoa.....

5. Erregimen dinamikoan:

- a. Kolektoreko korrontearen eta baseko korrontearen arteko zatidura beti da konstante:  $\beta$ .
- b. Kolektoreko korrontearen eta baseko korrontearen arteko zatidura bat dator erregimen estatikoko balioarekin, maiztasun baxuetan bakarrik.
- c. Kolektoreko korrontearen eta baseko korrontearen arteko zatidura maiztasunaren funtzioa da, maiztasuna handitu ahala handituz.


6. Erregimen dinamikoan:

- a. Schockley-ren ekuazioak ez du balio, gailuko karga-aldaketekin lotutako korronte-termino berriak agertzen baitira.
- b. Ezin da Schockley-ren ekuazioa erabili, soilik gailua seinale txikiko erregimenean dagoenean.
- c. Schockley-ren ekuazioa MHz-etako maiztasunetaraino erabil daiteke.

7. Gune aktiboan:

- a. BJTak korronteak eta tentsioak kontrolatutako korronte-iturri bezala jokatzeko du.
- b. BJTak tentsioak kontrolatutako korronte-iturri bezala jokatzeko du.
- c. BJTak korronteak kontrolatutako korronte-iturri bezala jokatzeko du.

8.  $V_1 = 10 \text{ V}$ ,  $V_2 = 5 \text{ V}$ ,  $I_{sat1} = 30 \text{ } \mu\text{A}$ ,  $I_{sat2} = 10 \text{ } \mu\text{A}$ ,  $R_L = 1 \text{ k}\Omega$ ,  $V_T = 25 \text{ mV}$



1. irudia

Kalkulatu (gailuetarako zeinu-hitzarmena erabiliz):  $I_{D1}$ ,  $I_{D2}$ ,  $V_{D1}$ ,  $V_{D2}$  eta  $V_0$

$$D_1 \text{ ON eta } D_2 \text{ OFF} \rightarrow I_{D1} = I_{sat2} = 10 \text{ } \mu\text{A}, I_{D2} = -I_{sat2} = -10 \text{ } \mu\text{A}$$

$$I_{D1} = I_{sat1} \cdot \left[ e^{\frac{V_{D1}}{V_T}} - 1 \right] \rightarrow V_{D1} = V_T \cdot \ln \left[ \frac{I_{D1}}{I_{sat1}} + 1 \right] \rightarrow V_{D1} = 0,00719 \text{ V} = 7,19 \text{ mV}$$

$$V_1 - V_{D1} - V_2 + V_{D2} - R_L \cdot I_{D1} = 0 \rightarrow V_{D2} = -4,99 \text{ V}$$

$$V_0 = R_L \cdot I_{D1} \rightarrow V_0 = 0,010 \text{ V}$$




2. Oreka termodinamikoan dagoen pn juntura batean:
- a. Elektroien eta hutsuneen atoiko eta barreiapeneko korronteak daude, baina juntura orekan dagoenez, korronteen osagaiak konpentsatzen dira, korronte garbia nulua izanez.
  - b. Elektroikorrontea baino ez dago, partikula bezala existitzen diren eramaile bakarrak direnak, eta, beraz, mugi daitezkeenak.
  - c. Ez dago atoiko korronterik ez barreiapeneko korronterik, juntura orekan dagoelako.
3. ZENER diodoak
- a. Duen ukondoko tentsioa diodo artezgailuak duena baino askoz handiagoa da.
  - b. Alderantzizko polarizaziopean soilik lan egin dezake.
  - c. Tentsio-iturri gisa erabiltzen dira, alderantzizko polarizaziopean.
4. «Einstein-en erlazioa»(k):
- a. Erregimen dinamikoan soilik da baliagarria.
  - b. Atoikoen eta barreiapeneko osagaien arteko erlazioa adierazten du, bai orekan, bai orekatik kanpo.
  - c. pn junturetarako soilik da baliagarria.
5. FETetan, draineiko korrontearen eta drainean aplikatutako tentsioaren arteko erlazioa:
- a. Zuzenki proportzionala da asetasunean, non irteerako ezaugarriek ia 0 malda baitute.
  - b. Zuzenki proportzionala da; horregatik, irteerako ezaugarriak lerro zuzen batekin hasten dira.
  - c. Zuzenki proportzionala da, soilik draineiko tentsioaren balio txikientzat, eskualde ohmikoan.
6. FETetan, draineiko asetasun-tentsioa:
- a. Gailuaren ezaugarrien araberakoa da soilik; beraz, magnitude konstante bat da.
  - b. Gailua etenduran sartzen den draineiko tentsioa da.
  - c. Balio absolutuan, atariko tentsioaren gainetik aplikatutako atearen tentsioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da.
7. Transistore bipolarra:
- a. Gailu erdieroale bat da, eta elkarrengandik oso gertu dauden bi pn juntura ditu.
  - b. Aukera biak zuzenak dira.
  - c. Bipolarra da, eroapenean eramaile mota biek parte hartzen dutelako.

8. Eremu efektuko transistoreak:

- a. Beste biak zuzenak dira.
- b. Polobakarrak dira, eroapenean eramaile mota bakar batek parte hartzen duelako.
- c. Kanpoko eremu elektriko batek edo potentzial-diferentzia batek kontrolatzen du pasabidearen eroankortasuna.

9.  $V_1 = 25 \text{ V}$ ,  $V_\gamma(D_1) = 0.3 \text{ V}$ ,  $V_\gamma(\text{LED}) = 4.5 \text{ V}$ ,  $R_L = 1 \text{ k}\Omega$



2. irudia

Kalkulatu (gailuetarako zeinu-hitzarmena erabiliz):  $I_{D1}$ ,  $I_{D2}$ ,  $V_{D1}$ ,  $V_{D2}$  eta  $V_0$

$$V_\gamma(D_1) = 0.3 \text{ V} < V_\gamma(\text{LED}) = 4.5 \text{ V} \rightarrow D_1 \text{ ON eta } D_2 \text{ OFF}$$

$$V_{D1} = V_{D2} = \mathbf{0,3 \text{ V}}$$

$$V_1 - V_{D1} - R_L \cdot I_{D1} = 0 \rightarrow I_{D1} = \mathbf{24,7 \text{ mA}}$$

$$V_0 = R_L \cdot I_{D1} \rightarrow V_0 = \mathbf{24,7 \text{ V}}$$


10. Seinale txikiko erregimenean lan egiten duen transistore bipolar baterako:

- a. pi zirkuitu hibridoa eta «h» parametroetan oinarritutako zirkuitua baliokideak dira, soilik maiztasun baxuetan.
- b. pi zirkuitu hibridoa eta «h» parametroetan oinarritutako zirkuitua baliokideak dira.
- c. pi zirkuitu hibridoa eta «h» parametroetan oinarritutako zirkuitua baliokideak dira, baina soilik igorle komuneko konfigurazioan.

**KOLEKTORE KOMUNEKO ANPLIFIKADOREA**


3. irudiko zirkuituaren datuak honako hauek dira:

$$|V_{BE}| = 0,6 \text{ V} \quad \beta = 250 \quad V_T = 0,025 \text{ V}$$



3. irudia

$v_s = 3 V_p$  izanda, 4. irudiko grafikoan erakusten den seinalea neurtu da igorlean.




4. irudia

*Erantzun*

a) Konfigurazio mota

**Kolektore komunekoa**

b) Lan-puntua



Grafikotik:  $V_E = 2 \text{ V} \rightarrow I_E = \frac{V_E}{R_4} = \frac{2}{2} = 1 \text{ mA}$

$$I_E = I_B + I_C = \left(\frac{1}{\beta} + 1\right) \cdot I_C = \left(\frac{1 + \beta}{\beta}\right) \cdot I_C \rightarrow I_C = 0,996 \text{ mA} \rightarrow I_B = \frac{I_C}{\beta} = 0,00398 \text{ mA}$$

$$12 - R_3 \cdot I_C - V_{CE} - R_4 \cdot I_E = 0 \quad (\beta = 250 \text{ denez}, I_E = I_C)$$


$$V_{CE} = 12 - 2 \cdot 1 - 2 \cdot 1 = 0 \rightarrow V_{CE} = 8 \text{ V}$$

c) Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa,  $I_C$ - $V_{CE}$  planoan, eta kokatu kalkulaturako  $Q$ .

$$I_C = \frac{12 - V_{CE}}{R_3 + R_4} = \frac{12 - V_{CE}}{4}$$

$$I_C = 0 \rightarrow V_{CE} = 12 \text{ V}$$

$$V_{CE} = 0 \rightarrow I_C = \frac{12}{4} = 3 \text{ mA}$$




d) Muntaia osoaren tentsio-irabazia.

$$v_{out} = v_e = 1 \text{ Vp (grafikotik)}$$

$$\Delta V_S = \frac{v_{out}}{v_s} = \frac{1}{3} = 0,333$$

e) Zirkuitu amplifikatzailearen tentsio-irabazia.



$$g_m = \frac{I_C}{V_T} = \frac{0,996}{0,025} = 39,84 \text{ (K}\Omega\text{)}^{-1}$$

$$g_b = \frac{I_B}{V_T} = \frac{0,00398}{0,025} = 0,159 \text{ (K}\Omega\text{)}^{-1} \rightarrow r_b = \frac{1}{g_b} = 6,275 \text{ k}\Omega$$

$$v_{out} = v_e = -i_e \cdot R_4 = -R_4 \cdot \left( \frac{1}{r_b} + g_m \right) \cdot v_{be} = 79,98 \cdot v_{be}$$

$$-i_e = i_b + i_c = \frac{v_{be}}{r_b} + g_m \cdot v_{be} = \left( \frac{1}{r_b} + g_m \right) \cdot v_{be} = 39,99 \cdot v_{be}$$

$$v_{in} = v_{be} + v_e = v_{be} + 79,98 \cdot v_{be} = 80,98 \cdot v_{be}$$

$$\Delta V = \frac{v_{out}}{v_{in}} = \mathbf{0,987}$$

f) Sarrerako inpedantzia.

$$\Delta V_s = R_s \frac{Z_{in}}{R_s + Z_{in}} \cdot \Delta V \rightarrow Z_{in} = \frac{R_s \cdot \Delta V_s}{\Delta V - \Delta V_s} \rightarrow Z_{in} = \mathbf{0,255 \text{ k}\Omega}$$

g) Nola eragiten du  $R_s$ -k muntaia osoaren tentsio-irabazian? Arrazoitu erantzuna.

**$Z_{in} < R_s$ enez,  $R_s$  handitzean,  $\Delta V_s$  txikiagoa egiten da.**

h)  $R_1$  eta  $R_2$  erresistentzien balioak.

$$Z_{in} = \frac{v_{in}}{i_{in}} = \frac{80,98}{\left(0,159 + \frac{80,98}{R_{TH}}\right)} = 0,255 \text{ k}\Omega \rightarrow R_{TH} = 0,255 \text{ k}\Omega$$


$$i_{in} = i_b + i_{R_{in}} = \frac{v_{be}}{r_b} + \frac{v_{in}}{R_{TH}} = \left(\frac{1}{r_b} + \frac{80,98}{R_{TH}}\right) \cdot v_{be}$$

$$V_{TH} - R_{TH} \cdot I_B - V_{BE} - R_4 \cdot I_E = 0$$

$$V_{TH} - 0,255 \cdot 0,00398 - 0,6 - 2 \cdot 1 = 0 \rightarrow V_{TH} = 2,6 \text{ V}$$

$$\frac{R_2 \cdot 12}{R_1 + R_2} = 2,6 \text{ V}, \quad \frac{R_1 \cdot R_2}{R_1 + R_2} = 0,255 \text{ k}\Omega \rightarrow R_1 = 1,17 \text{ k}\Omega, \quad R_2 = 0,324 \text{ k}\Omega$$

i) Irteerako inpedantzia.



$$Z_{out} = Z'_{out} \parallel R_4, \quad Z'_{out} = \left. \frac{V_2}{I_2} \right|_{v_s=0}$$

$$I_2 = -(i_b + i_c) = -\left(\frac{v_{be}}{r_b} + g_m \cdot v_{be}\right) = -\left(\frac{1}{r_b} + g_m\right) \cdot v_{be} = -39,99 \cdot v_{be}$$

$$v_{in} = -(R_s \parallel R_{TH}) \cdot \frac{v_{be}}{r_b}$$

$$v_{be} = v_{in} - V_2 = -(R_s \parallel R_{TH}) \cdot \frac{v_{be}}{r_b} - V_2 \rightarrow V_2 = -\left[\frac{(R_s \parallel R_{TH})}{r_b} + 1\right] \cdot v_{be}$$

$$Z'_{out} = \left. \frac{V_2}{I_2} \right|_{v_s=0} = \frac{-\left[\frac{(R_s \parallel R_{TH})}{r_b} + 1\right] \cdot v_{be}}{-\left(\frac{1}{r_b} + g_m\right) \cdot v_{be}} = 0,0257 \text{ k}\Omega$$

$$Z_{out} = 0,0253 \text{ k}\Omega$$

j) Kalkukatu eta marraztu karga zuzen dinamikoa.

$$v_{\text{out}} = v_e = v_{ec} = -i_e \cdot R_4 = R_4 \cdot \left(\frac{1+\beta}{\beta}\right) \cdot i_c \rightarrow v_{ce} = -R_4 \cdot \left(\frac{1+\beta}{\beta}\right) \cdot i_c$$


$$-i_e = i_b + i_c = \left(\frac{1+\beta}{\beta}\right) \cdot i_c$$

$$m_{kzd} = \frac{i_c}{v_{ce}} = -\frac{1}{R_4 \cdot \left(\frac{1+\beta}{\beta}\right)} = -\frac{1}{2}$$

$$\text{karga - zuzen dinamikoa : } (i_c(t) - I_C) = m_{kzd} \cdot (v_{ce}(t) - V_{CE})$$

$$(i_c(t) - 0,996) = -\frac{1}{2} \cdot (v_{ce}(t) - 8)$$

$$i_c(t) = 0 \rightarrow v_{ce}(t) = 1,992 + 8 = 9,99 \text{ V}$$



k) Irteerako seinalearen tarte dinamikoa.


$$9,99 - 8 = 1,99 \text{ V}$$

**Tarte dinamikoa 1,99 V-ekoa da.**

**ATE KOMUNEKO ANPLIFIKADOREA**

5. irudiko transistorean:

$$|I_{DSS}| = 4 \text{ mA} \quad |V_T| = 2 \text{ V}$$



5. irudia

*Erantzun*

- a) Zein motatakoa da zirkuituan erabilitako transistorea? Nolakoak dira haren asetasun-korrontea,  $I_{DSS}$ , eta atariko tentsioa,  $V_T$ ? Adierazi zirkuituan bertan transistorearen terminalak.

***n pasabideko ugaltze MOSFET bat da. Beraz, asetasun-korrontea,  $I_{DSS}$ , eta atariko tentsioa,  $V_T$ , biak dira positiboak.***

- b) Transistorea etenduran polarizatuta egon dadin, nolako izan behar da V tentsioa?

$$I_D = 0, \quad V_{GS} \leq V_T$$

$$V - V_{GS} - R_1 \cdot I_D = 0 \rightarrow V = V_{GS} \rightarrow V \leq 2 \text{ V}$$

- c)  $V = 5 \text{ V}$  izanda, kalkulatu iturriko terminalean dagoen tentsioa.

Zirkuitutik:  $V_{GS} = V - R_1 \cdot I_D = 5 - 1 \cdot I_D$

Asetasunean:  $I_D = I_{DSS} \cdot \left(1 - \frac{V_{GS}}{V_T}\right)^2 = 4 \cdot \left(1 - \frac{(5 - 1 \cdot I_D)}{2}\right)^2$



$$I_D^2 - 7 \cdot I_D + 9 = 0$$

$$I_D = 5,3 \text{ mA} \rightarrow V_{GS} = 0,3 \text{ V}$$

$$I_D = 1,7 \text{ mA} \rightarrow V_{GS} = 3,3 \text{ V} (> V_T)$$

$$V_S = R_1 \cdot I_D = 1 \cdot 1,7 \rightarrow V_S = 1,7 \text{ V}$$

- d)  $V = 5 \text{ V}$  izanda, kalkulatu  $R_2$  erresistentziak izan dezakeen balio maximoa transistorea aseptasunean polarizatuta egon dadin.

$$V_{DS} \geq V_{DS_{sat}} \rightarrow V_{DS_{min}} = V_{DS_{sat}}$$

$$V_{DS_{sat}} = V_{GS} - V_T = 3,3 - 2 = 1,3 \text{ V}$$


$$V - R_{2_{max}} \cdot I_D - V_{DS_{sat}} - R_1 \cdot I_D = 0 \rightarrow R_{2_{max}} = \frac{V - V_{DS_{sat}} - R_1 \cdot I_D}{I_D} \rightarrow R_{2_{max}} = 1,17 \text{ k}\Omega$$

- e) Kalkulatu transkonduktantzia,  $g_m$ .

$$g_m = \frac{2 \cdot \sqrt{I_D \cdot I_{DSS}}}{|V_T|} = \frac{2 \cdot \sqrt{4 \cdot 1,7}}{2} = 2,6 \text{ (kohm)}^{-1} \rightarrow g_m = 2,6 \text{ (k}\Omega)^{-1}$$

- f) Zein da zirkuitu amplifikatzailearen konfigurazioa? *Ate komunekoa.*

Zenbatekoa da tentsio-irabazia? Atal honetatik aurrera, hartu  $R_2 = 1 \text{ k}$ .



$$\Delta V = \frac{v_{out}}{v_{in}} = \frac{g_m \cdot v_{gs} \cdot (R_1 \parallel R_2)}{v_{gs}} = 2,6$$

$$v_{out} = -R_2 \cdot i_d = -R_2 \cdot g_m \cdot v_{gs} = -2,6 \cdot v_{gs}$$


$$v_{in} = v_{sg} = -v_{gs}$$

g) Kalkulatu zirkuitu amplifikatzailearen sarrerako inpedantzia.

$$Z_{in} = \frac{v_{in}}{i_{in}} = \frac{1}{3,6} = \mathbf{2,8 \text{ k}\Omega}$$

$$i_{in} = i_1 - i_d = \frac{v_{in}}{R_1} - g_m \cdot v_{gs} = \left( \frac{1}{R_1} + g_m \right) \cdot v_{in} = 3,6 \cdot v_{in}$$

h) Kalkulatu zirkuitu amplifikatzailearen irteerako inpedantzia.



$$Z_{out} = Z'_{out} // R_2$$

$$Z'_{out} = \left. \frac{V_2}{I_2} \right|_{v_{in}=0} = \infty$$

$$I_2 = i_d = g_m \cdot v_{gs} = -g_m \cdot v_{in} = 0$$

$$\mathbf{Z_{out} = R_2 = 1 \text{ k}\Omega}$$

i) Irudian erabilitako polarizazio-zirkuituak asetasuna bermatzen du, tentsioaren eta erresistentzien balioen independentziarekin? Arrazoitu erantzuna.

$$V_{DS} \geq V_{DS_{sat}} = V_{GS} - V_T$$

$$V - (R_1 + R_2) \cdot I_D \geq V - R_1 \cdot I_D - V_T$$


$$-R_2 \cdot I_D \geq -V_T$$

$R_2 \cdot I_D \leq V_T \rightarrow \mathbf{EZ}$ , ez du asetasuna bermatzen,  $R_2$  erresistentziaren eta  $V_T$  parametroaren balioen menpe dago.

# 2019ko ekaina

## PN JUNTURA - ZIRKUITU DIODODUNA


1. 1. irudiko zirkuituan, diodoak berdin-berdinak dira, eta 0,7 V-eko ukondoko tentsioa daukate.




1. irudia

- a) Kalkulatu eta marraztu zirkuituaren transferentzia-kurba.


$$v_{in} \leq 6,4 \text{ V} \quad \left. \begin{array}{l} D_1 \text{ OFF} \\ D_2 \text{ OFF} \end{array} \right\} v_{out} = 0 \text{ V}$$




$$v_{in} \leq 6,4 \text{ V} \quad v_{out} = R \cdot I = R \frac{v_{in} - 5 - 1,4}{R} \quad \boxed{v_{out} = v_{in} - 6,4}$$




$v_{in}, D_1, D_2$  ON?  $v_{in} = 6,4 \text{ V}$



b)  $v_{in} = 10 \cdot \text{sen}(\omega t) \text{ V}$  bada, marraztu  $v_{in}$  eta  $v_{out}$  grafiko berean.



c)  $D_1$  diodoaren polaritatea aldatuz gero, kalkulatu zirkuituaren transferentzia-kurba berria.



*Diodoak seriean daudenez, biak ezin dira batera ON egoeran egon; beraz,*

$$v_{\text{out}} = 0 \text{ V}$$

Gainera, badakigu 1. irudiko diodoak pn juntura batez osatuta daudela.  $n$  eskualdeak daukan elektroiaren kontzentrazioa  $10^{14} \text{ cm}^{-3}$  da,  $p$  eskualdeak daukana  $10^3 \text{ cm}^{-3}$ , eta kontzentrazio intrintsekoa  $10^{10} \text{ cm}^{-3}$  da. Bestelako datuak:

$$\epsilon_{r, Si} = 11,8 \quad \epsilon_0 = 8,854 \cdot 10^{-12} \text{ F/m} \quad q = 1,6 \cdot 10^{-19} \text{ C}$$

d) Kalkulatu potentzial termodinamiko. Zein da potentzial gehien duen eskualdea?

ARRAZOITU ERANTZUNA.

$$n_n = 10^{14} \text{ cm}^{-3} \cong N_D \quad n_p = 10^3 \text{ cm}^{-3} \quad n_i = 10^{10} \text{ cm}^{-3}$$

$$\phi_T = V_T \ln \frac{N_A N_D}{n_i^2}$$

$$n_p \cdot p_p = n_i^2 \rightarrow p_p \cong N_A = \frac{n_i^2}{n_p} = \frac{10^{20}}{10^3} = 10^{17} \text{ cm}^{-3} \rightarrow p^+n \text{ junturako diodoa da.}$$

$$\phi_T = 633,2 \text{ mV}$$

*$n$  eskualdea da potentzial gehien duena; hau da, katodoa. Elektroi kopuru handiena duelako.*

e) Kalkulatu hustutako eskualdearen zabalera oreka termodinamikoan. Zer eskualdetan zehar zabalduko da nagusiki? ARRAZOITU ERANTZUNA.

$$l = \sqrt{\frac{2\epsilon}{q} \left( \frac{1}{N_A} + \frac{1}{N_D} \right) \phi_T} \rightarrow l = 2,88 \text{ } \mu\text{m}$$

*Hustutako eskualdea katodotik zabaltzen da nagusiki, katodoak dopaketa baxuena duelako.  $p^+n$  motako juntura asimetriko bat da.*


**IGORLE KOMUNEKO ANPLIFIKADOREA**

2. 2. irudiko zirkuituan, honako hauek dira transistore bipolarraren datuak:

$$\beta = 100 \quad V_{BE} = 0,7 \text{ V} \quad R_S = 5 \text{ k}\Omega \quad R_{Load} = 50 \text{ k}\Omega$$

Gainera, neurraketa hauek egin dira:


$$I_C = 0,12 \text{ mA} \quad V_{CE} = 2,08 \text{ V} \quad Z_{in} = 11,3 \text{ k}\Omega \quad Z_{out} = 39 \text{ k}\Omega$$



2. irudia

a) Kalkulatu  $R_C$ ,  $R_{B1}$ ,  $R_{B2}$  eta  $R_E$  erresistentzien balioa.

*Polarizazio-zirkuitua:*




$$15 - V_{CE} = R_C I_C - R_E I_E$$

$$15 - V_{CE} = R_C I_C + R_E (I_C + I_B)$$

$$15 - V_{CE} = \left[ R_C + R_E \left( \frac{\beta + 1}{\beta} \right) \right] I_C \rightarrow K.Z.E$$

$$9 - V_{BE} = (R_{B1} + R_{B2}) I_B + R_E (I_C + I_B)$$


Seinale txikiko zirkuitua:



$$Z_{in} \equiv \frac{v_{in}}{i_s} = \frac{1}{\frac{1}{R_{B1}} + g_b} = 11,3 \quad \left( \frac{1}{11,3} - g_b \right) = \frac{1}{R_{B1}} \rightarrow R_{B1} = 24,69 \text{ k}\Omega$$

$$i_s = \frac{v_{in}}{R_{B1}} + g_b v_{in} = \left( \frac{1}{R_{B1}} + g_b \right) v_{in}$$

$$g_b \equiv \frac{I_B}{V_T} = \frac{I_C}{\beta V_T} = 0,048 (\text{k}\Omega)^{-1}$$



$$Z_{out} \equiv Z_{out} \parallel R_C \quad Z_{out} = R_C = 39 \text{ k}\Omega$$

$$Z_{out} = \frac{V_2}{I_2} \Big|_{v_s=0} = \infty$$

$$I_2 = i_c = g_m v_{be} = g_m v_{in} = g_m v_s = 0$$

$$K.Z.E - tik : \quad \left[ \frac{15 - V_{CE}}{I_C} - R_C \right] \frac{\beta}{\beta + 1} = R_E \quad \boxed{R_E = 67,99 \text{ k}\Omega = 68 \text{ k}\Omega}$$

Baseko begiztatik:

$$\frac{9 - V_{BE} - R_E \frac{\beta + 1}{\beta} I_C}{I_C / \beta} - R_{B1} = R_{B2} \quad \boxed{R_{B2} = 23,98 \text{ k}\Omega = 24 \text{ k}\Omega}$$

b) Zirkuitua egonkorra da? ARRAZOITU ERANTZUNA.


$R_{TH} = R_{BB} = R_{B1} + R_{B2}$  dela onartuz eta egonkortasunerako baldintza aplikatuz,

$$\frac{R_{BB}}{R_E} \ll \beta \quad \rightarrow \quad 0,72 \ll 100 \quad \text{BAI, egonkorra da.}$$

c) Kalkulatu eta marraztu karga zuzen estatikoa,  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrian, balio esanguratsuenak adieraziz, eta kokatu lan-puntua karga zuzen estatikoaren gainean.

K.Z.E.:

$$I_C = \frac{15 - V_{CE}}{R_C + R_E \frac{\beta + 1}{\beta}} \cong \frac{15 - V_{CE}}{R_C + R_E}$$



d) Kalkulatu muntaketa osoaren tentsio-irabazia eta korrante-irabazia.

$A_v, A_I$  ?

$$A_v \cong \frac{v_{out}}{v_s} = -\frac{(R_C \parallel R_L)g_m}{R_S \left( \frac{1}{R_{B1}} + g_b \right) + 1} \quad \rightarrow \quad \boxed{A_v = -72,91}$$

$$v_{out} = -(R_C \parallel R_L)i_c = -(R_C \parallel R_L)g_m v_{be} = -(R_C \parallel R_L)g_m v_{in}$$

$$\left. \begin{aligned} v_s &= R_S i_s + v_{in} \\ i_s &= \left( \frac{1}{R_{B1}} + g_b \right) v_{in} \end{aligned} \right\} v_s = \left[ R_S \left( \frac{1}{R_{B1}} + g_b \right) + 1 \right] v_{in}$$



$$g_m \equiv \frac{I_C}{V_T} = 4,8 \text{ (k}\Omega\text{)}^{-1} \rightarrow g_b \equiv \frac{g_m}{\beta} = 0,048 \text{ (k}\Omega\text{)}^{-1}$$

$$R_C \parallel R_L = \frac{R_C \cdot R_L}{R_C + R_L} = 21,91 \text{ k}\Omega$$

$$A_I \equiv \frac{i_L}{i_s} = -\frac{(R_C \parallel R_L)g_m}{R_L \left( \frac{1}{R_{B1}} + g_b \right)} \rightarrow \boxed{A_I = -23,77}$$


$$v_{\text{out}} = R_L \cdot i_L = -(R_C \parallel R_L)g_m v_{\text{in}} \rightarrow i_L = -\frac{(R_C \parallel R_L)g_m}{R_L} v_{\text{in}}$$

- e) Kalkulatu eta marraztu karga zuzen dinamikoa  $I_C - V_{CE}$  ezaugarrian, eta kalkulatutarte dinamikoa.

$$v_{\text{out}} = v_{ce} = -(R_C \parallel R_L)i_c \rightarrow i_c = -\frac{V_{ce}}{R_C \parallel R_L}$$

$$i_c(t) - I_{CQ} = -\frac{1}{R_C \parallel R_L} [V_{CE}(t) + V_{CEQ}] \text{ r.c.d}$$

$$i_c(t) = 0 \rightarrow (R_C \parallel R_L)I_{CQ} + V_{CEQ} = v_{CE}(t) \rightarrow v_{CE}(t) = 4,71 \text{ V}$$



→ Tarte dinamikoa 2,08 V, asetahunak mugatuta.



f) Marraztu, grafiko berean,  $v_s(t)$  seinalea eta kolektoreko tentsio osoa,  $v_c(t)$ , honako kasu hauetan:

i)  $v_s(t) = 10 \text{ mV}_p$

$$v_c(t) = V_C + v_c(t) = V_C + v_{\text{out}}(t)$$



$$v_s(t) = 10 \text{ mV}_p \quad V_C = 15 - R_C I_C \quad V_C = 10,32 \text{ V}$$

$$v_{\text{out}} = A_V \cdot v_s = 0,73 \text{ V}_p \quad \rightarrow \quad v_c(t) = 10,32 - 0,73 \text{ V}_p$$



ii)  $v_s(t) = 60 \text{ mV}_p$

$v_{\text{out}} = A_V \cdot v_s = 4,37 \text{ V}_p \rightarrow$  *Irteera distortsionatua, asetasunagatik eta etenduragatik.*



Erresistentzietarako honako balio hauek hartuz:

$R_{B1} = 25 \text{ k}\Omega$

$R_{B2} = 24 \text{ k}\Omega$

$R_C = 39 \text{ k}\Omega$

$R_E = 68 \text{ k}\Omega$

Eta  $V_{BB}$  ezezaguna dela, eta  $|I_{CO}| = 1 \text{ pA}$  eta  $|I_{EO}| = 0,5 \text{ pA}$  direla kontuan hartuz:

g) Zein da transistorea asetasunera eramaten duen baseko korrontearen balio minimoa?

Asetasunean:  $V_{CE} \cong 0 \rightarrow I_C = \frac{15}{R_C + R_E} \frac{\beta + 1}{\beta}$

$I_C = 0,14 \text{ mA}$

$\downarrow I_{B, \text{min}} = \frac{I_C}{\beta} = 1,39 \mu\text{A}$

h) Kalkulatu  $\alpha_F$  eta  $\alpha_R$  parametroen balioak.

$$\alpha_F, \alpha_R?$$

$$\alpha_F \equiv \frac{\beta_F}{1 + \beta_F} \rightarrow \boxed{\alpha_F = 0,9901}$$

$$\alpha_F I_{EO} = \alpha_R I_{CO} \rightarrow \boxed{\alpha_R = 0,4951}$$

$V_{BB}$  tentsioaren balio jakin baterako  $I_B = 0,003$  lortu dela kontuan hartuz:

i) Kalkulatu  $V_{BE}$ ,  $V_{BC}$  eta  $V_{CE}$  tentsioen balio zehatzak, eta,  $I_C$  eta  $I_E$  korronteen balio zehatzagoak (hurbilketa hobeak direnak).

$$I_B = 0,003 \text{ mA} \quad V_{BE}, V_{BC}, V_{CE} ???$$

$$\left. \begin{aligned} I_E &= -I_{ES} \left( \exp \frac{V_{BE}}{V_T} - 1 \right) + \alpha_R I_{CS} \left( \exp \frac{V_{BC}}{V_T} - 1 \right) \\ I_C &= \alpha_F I_{ES} \left( \exp \frac{V_{BE}}{V_T} - 1 \right) - I_{CS} \left( \exp \frac{V_{BC}}{V_T} - 1 \right) \end{aligned} \right\}$$

$$\left. \begin{aligned} I_C &= \alpha_F I_{ES} - I_{CO} \left( \exp \frac{V_{BC}}{V_T} - 1 \right) \\ I_E &= \alpha_R I_C - I_{EO} \left( \exp \frac{V_{BE}}{V_T} - 1 \right) \end{aligned} \right\}$$

$$I_B = 3 \mu\text{A} \text{ denez, BJT asetasunean dago} \rightarrow I_C = 0,14 \text{ mA} \rightarrow I_E = -0,143 \text{ mA}$$

$$V_{BE} = V_T \ln \left[ \frac{I_E + \alpha_R I_C}{-I_{EO}} + 1 \right] = 470 \text{ mV}$$

$$V_{BC} = V_T \ln \left[ \frac{I_C + \alpha_F I_E}{-I_{CO}} + 1 \right] = 356,9 \text{ mV}$$

↓

$$\boxed{V_{CE} = V_{CB} + V_{BE} = 113,1 \text{ mV}}$$

↓


$$I_C = \frac{15 - V_{CE}}{R_C + R_E \frac{\beta + 1}{\beta}} \rightarrow \boxed{\begin{aligned} I_C &= 0,138 \text{ mA} \\ I_E &= -0,141 \text{ mA} \end{aligned}}$$

**ITURRI KOMUNEKO ANPLIFIKADOREA**

3. 3. irudiko transistorean:


$$|I_{DSS}| = 1 \text{ mA}$$

$$|V_T| = 1 \text{ V}$$




3. irudia

a) Zein da erabilitako gailua? Kokatu, zirkuituan bertan, draina, iturria eta atea.  $p$  pasabideko JFET bat da



b) Marraztu bere transferentzia-ezaugarria, balio esanguratsuenak adieraziz.



c) Kalkulatu lan-puntua.

Demagun JFET asetasurean dagoela :  $I_D = I_{DSS} \cdot \left(1 - \frac{V_{GS}}{V_T}\right)^2$

$$I_D = -1 \left(1 - \frac{V_{GS}}{1}\right)^2 \rightarrow \left. \begin{array}{l} -I_D = (1 - V_{GS})^2 \\ V_{GS} = -5,6 I_D \end{array} \right\}$$

$$-I_D = (1 + 5,6 I_D)^2$$

$$31,36 I_D^2 + 12,2 I_D + 1 = 0$$

$$I_D = \left\{ \begin{array}{l} -0,117 \text{ mA} \\ -0,272 \text{ mA} \end{array} \right\} \rightarrow V_{DS} = \left\{ \begin{array}{l} 0,66 \text{ V} \\ 1,52 \text{ V} \end{array} \right\}$$


$$12 + V_{DS} = -(R_1 + R_2 + R_3) I_D \rightarrow \boxed{V_{DS} = -5,46 \text{ V}}$$

Asetasurean egoteko,


$$|V_{DS}| \geq |V_{D, SAT}| = |V_{GS} - V_T|$$

$$5,46 \geq |0,66 - 1| \rightarrow \text{BAI}$$

